

# uk

101. zenbakia / 2006 ekainak 4



THE HIGH QUALITY BINOCULAR  
VIEWERS ARE PROVIDED  
BY  
**BRUSH & LOMB**  
INCORPORATED  
MANUFACTURED IN U.S.A.

25c  
TO OPERATE  
LONG RANGE BINOCULARS  
1. DROP COIN IN SLOT  
2. PULL HANDLE DOWN  
ALL THE WAY - LET GO  
3. TO CLEAR VISION - TURN RED  
KNOB.

1728

# GETXO BLUES

FESTIVAL INTERNACIONAL XVIII NAZIOARTEKO JAIALDIA



**EKAINA 9 JUNIO**  
21:30 (viernes/ostirala)



TRAVELLIN BROTHERS + CAREY & LURRIE BELL

**EKAINA 10 JUNIO**  
21:30 (sábado/aronbata)



IKE TURNER & THE KINGS OF RHYTHM

**EKAINA 11 JUNIO**  
20:00 (domingo/igandea)



NORA JEAN BRUSO

Entrada libre  
Sarrera dohainik

PUERTO VIEJO DE ALGORTA  
ALGORTAKO PORTU ZAHARRA

## UK galeria > Jon Bernardez



Arte Ederrak ikasketak egin zituen Jon Bernardezek (Getxo, 1962). Ondoren bete-betea prentsa argazkilaritzan sartu zen. Prentsa lokalean (Getxoko Galean) hasi zen bere argazkiak argitaratzen eta apurka apurka, 1985etik aurrera, makina bat egunkaritan (Deia, Correo, Avui, La Vanguardia, El pais...), baita aldizkaritan ere (Altair, Geo, Woman...). 1989an Jaurlaritzako Lehendakartzan hasi zen lanean eta harrezkero Lehendakartzako argazkilaria da. Beti argazkilaria independentea izan da eta horrela jarraitzen du.

Baina lan hauez gain, sormenezko argazkilaritza ere jorratu izan du Bernardezek, zuri-beltzean beti. Izan ere, zuri beltzaren defenditzaile sutsua da. Azpimarragarria da orain dela urte bi *Instinto urbano* izenburupean egin zuen erakusketa, eta honekin batera liburua. Mundu osoko hiritan egindako argazkiak erakutsi zituen lan horretan.

New York, 1994



«Barrerik egin gabe egin daitekeen gauzarik dibertigarriena da sexua» Esaera arabiarra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Makalen haziak, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Leioako musika eskola.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Igor Elordui, A. M.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Martiartu batailioa, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Getxoko behi siamesak, Mikel Martinez.
30. BERBETAN. Garbiñe Biurrun, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Euskal Herriak, Santi Yaniz.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Kultur Leioa zine denboraldia.
43. MUSIKA. Getxo Blues. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Bingen Ametzaga. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Getxoko Basket Campusa.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Nerea Landa, dermatologoa.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Gorlizko Arrien jatetxera.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxo Rugby Taldeko Kadeteak, 1980.
54. AITORMENAK. Agurme Anasagasti.



30 Garbiñe Biurrun



11 Igor Elordui

### Berbetan

Tolosarra. Gaztetan, Garbiñe Biurrunek argi zeukan Zuzenbidea ikasi gura zuela, "baina norbaitek esan bait epalea izango nintzela, ez niokeen sinestuko"



34 Santi Yaniz



46 Nerea Landa



54 Agurme Anasagasti



21 Lorea Anakabe

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERRREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamuruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	--

	<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>	
--	--	--

	<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
---	--	---

	<p>Aldizkari honek Gorlizko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
---	---	---

	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>
---	---

# gugeu

## Zenbaki honetan

**HAUXE DUZUE** UK aldizkariaren 101. zenbakia, 2006ko bederatzigarrena. Txoko honetan sarritan aipatu dugu generoarekin izaten dugun kezka. Esan nahi da, askotan konturatzen garela oso emakumezko gutxi ekartzen ditugula UK-ko orrialdeetara. Bada, zenbaki honetan aurkakoa gertatu zaigu; gehiago dira emakumezkoak. Gainera bakoitza bere alorren kategoriakoak dira emakumezko hauek. Tontakeria bat eman badezake ere, poztu egin gara.

**Garbiñe Biurrun** epaile lanpetuak tarte bat eskaini digu eta, beste gauza askoren artean, bizkairzainik gabeko bere bizitza berriaz hitz egin digu. **Agurne Anasagasti** polifazetikoak *Aitormenak* atalera ekarri digu. Bestetik, akaso izenez ez da oso ezaguna, baina bere arloan eminentzia bat da **Nerea Landa** dermatologoa. Kategoriako beste emakumezko bat Sopelako **Lorea Anakabe** erizaina da. Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetan egon berri da eta han ikusitakok kontatu dizkigu. Eta zelan ez? Genero kontuetan aditua den Uribe Kostako Berdintasun teknikari berria ere ezagutu nahi izan dugu: **Estibalitz Anitua**.

Historiazaleak garela eta, oro har, iraganari begiratzea gustatzen zaigula gauza jakina da. 36ko gerrako gai bi aurkituko duzue UK honetan. Batetik, *Album* atalean nagusiki eskualdeko gudariez osatu zen **Martiartu** batailoi abertzalearen argazki hungarriak aurkituko dituzue. Bestetik, gerraren biktima eta atzerira ihes egin behar izan zuten **Bingen Ametzaga** idazle algortarraren berri topatuko duzue *Liburuak* atalean.

Tira, hau guztia eta askoz ere gehigo. Ondo ibilil! 4

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua



leihatila > Maddi Albizu


## Gaztelekua

Getxoko Udalak parte-hartze prozesu xume bat jarri du abian: Getxoko 12 urtetik 17 urtera bitarteko nerabeei, eurentzat beren-beregi zabalduko den ekipamendu baten diseinuan esku hartzeko aukera emango zaie. Nerabeak “izaki hibridoak” dira, erabat heldu barik dauden umeak direlako; ez ume, ez heldu. Nerabe gizajeok gizarteak behin eta berriz ez ikusiarena egitea dute patu eta halabehar. Honi “edadismoa” deitzen zaio, hau da, adinarentatik diskriminazio edo bereizkeria. Zaharrak ere edadismoaren biktima izaten dira sarritan. Haurrak, nerabeak, gazteak eta zaharrak, ordea, gizartearen parte dira, eta, beraz, euren dagozkien kontuetan erabakiak hartzeko prozesuetan esku hartzeko aukera eman behar zaie, zer esan handia dute eta. Pozgarria da oso, noizean behin bada ere, ahotsik gabekoei ahotsa emateko ahaleginak, egon, badaudela, jakitea. 4



ALGORTA, 2006KO MAIATZA

**Ugaltzea** / Naturak urrun joan barik, Getxon bertan esaterako, horrelako irudi ederrak eskaintzen dizkigu lantzean behin. Elurra edo lainoa dela ematen badu ere, goiko argazkian, makalen haziak dira txibiritak laztantzen dituztenak. Otsaila eta apirila artean loratzen dira makalak, gero euren hazi delikatuak han eta hemen barreiatzen ditu haizeak. Izan ere, berez espezie kolonizatzailea da makala eta horregatik hazi asko eta asko sortzen ditu, espeziea ahalik eta gehien zabaltzeko. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Hemen **ere** zure seme alaben etorkizunak euskaraz hitzegiten du

# IKASGEHI

Getxoko eskolaz kanpoko ekintzak euskalduntzeko hitzarmena

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VRSCO  
KULTURAGALA DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO ▶ Euskara Zerbitzua

**BFA DFB**  
Bilboko Foru Alkandua Diputación Foral de Bizkaia

[lehen]



KULTUR LEIOA

[orain]



ASIER MENTAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / LEIOAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

### uribitakora > kruzeroaren kruzada



Urte hasieran Getxon porturatutako lehenengo kruzeroa, Midnatsol

Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Hirugarren sektore horren desioan, hazkundea izan da kanpo-inbertsioan. Olatuen gaineko hotel-pentsioan Gopher tabernan eta Vicky pasioan, "Itsasoan Oporrak" euskal bertsoan.

Itsasorik itsaso, portutik portura, Indioen lurrera Kolonen modura. Hirugarrena bada Afrikako hura, zeharkatu ezker Kantauriko ura, lehenengokoak datoz bigarren mundura.

"Look, my darling, they are basques, -bikote ingeles bat-indio zaharragourik ez dauka leuropak" "Honey, badoa ontzia, come on, we must go back" "Hemen ez du hainbeste eragin denborak" Hurrengora arte Marshall jaunaren ilobak!

\* Doinua: Maisu Ruanda zer da



### txistea > zoriontsuak

-Josetxo! Zein zoriontsuak ginen orain dela 15 urte.  
-Orain dela 15 urte? Baina orain dela 15 urte ez genuen elkar ezagutzen eta.  
-Horrexegatik bada!

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

### telebista > euskarazko kate digitalaren alde



Maiatzaren 18an aurkeztutako ekimenak babesle ugari ditu. Harremanetarako: [ibaizabaltaldea@gmail.com](mailto:ibaizabaltaldea@gmail.com)

**Joan den** maiatzaren 18an aurkeztu zuen Bilboko Kafe Antzokian Ibaizabal Talde Eragileak euskarazko telebista digitala Bilbo inguruan martxan jartzeko ekimena. Eusko Jaurlaritzak tokiko telebistak arautuko dituen dekretua iragarri du eta Ibaizabal taldeko euskaltzaleek ez dute aukera hori galtzen utzi gura; izan ere, behin hori onartuta, kate gehiago ikusiko dira etxeetan. Hori dela eta, Bizkaiko hiriburuan eta itsasadarraren inguruko udalerrietan euskaraz jardungo duen telebista proiektua sustatzeko ahalegina egingo dute. Hiru kazetarik aurkeztu dute ekimena: Euskadi Irratiko Goizalde Landabasok, Josi Basterretxea EHUKo irakasleak eta Berriako Gotzon Herrosillak.

Jaurlaritzak Bilbo, Barakaldo eta Getxo lege izendatzen dituen eremuetan Ezkerraldeko lau herriak, Meatzaldea, Basauri, Galdakao, Enkarterriak eta Uribe Kostako udalerriak ere sartzen dira eta, guztira, 378.418 lagun dira telebista euskaraz ikus dezaketen bizilagunak. Beraz, estilo propioa duen telebista sortu gura dute, inguruko biztanleen ezaugarriak aintzat hartuko dituen eta euskarari garrantzia emango diona. Horretarako, Ibaizabalen aldeko babes handitu gura dute proiektua egia bihurtu dadin. m

**saiaz getaria**  
HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa

..harria
...lehenengo garaiak...
...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

## natura > arrain hiruarantzaren afera



**Gobela,** Galindo eta Asua erreketan bizi den arrain hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*) desagertzeaz dagoela salatu zuen orain dela egun batzuk PPko Arturo Aldecoak Bizkaiko Batzar Orokorretan. Politikariak jakinarazi zuenez, Gobelan ez da mota horretako arrainik geratzen eta Asuan sei besterik ez dira zenbatu. Bestalde, arrainaren egoera Getxon kritikoa izatea ukatu du Fernando Burzako Ingurumen Arloko zinegotziak eta udalerrian biodibertsitatea babesteko egindako azterketek horrela frogatzen dutela azpimarratu du. Bizkaiko Foru Aldundiko teknikoei, azken urteetan, Bolue hezegunean eta Gobela errekan hainbat ikerketa egin dutela dio zinegotziak eta, hezegunearen kudeaketaren hobekuntzari esker, hazkunde-tasa igo dela ziurtatu du. <sup>m</sup>

Arrain hiruarantza ur lasaietan bizi da

## gaztetxea > auzolanak Txorimalon



**Hilabete** bi dira Algortako Gazte Asanbladako 50 bat kidek Aixerrota inguruan etxe huts bat okupatu eta Txorimalo gaztetxea sortu zutela. Epe horretan etxea atontzen ibili dira, baina oraindik ez da jende askorik

hurbildu, herritik urrun geratzen da-eta. Beraz, jendearen parte hartzea sustatzeko eta bide batez gaztetxea konpontzeko, auzolanak antolatu dituzte ekainaren 3rako, 4rako, 9rako eta 10erako. Gaztetxe berriak martxoan hustutako Mentxakabarriren lekukoa hartu gura du eta, horretarako, kulturgune alternatiboa eta inguruko gazteentzako topagunea sortzen ahaleginduko dira solairu bi, garaje antzeko bat eta baratza duen eraikinean. <sup>m</sup>

## artea > Zeballosen lanak Bilbon



**Alberto Zeballos** margolari getxoztarrak bere azken lanak erakutsiko ditu ekain osoan zehar Bilboko Zazpi kaleetako Bizitza taberna (Barrenkale alboan) ospetsuan. Formato eta teknika berritzaileak baliatuz egindako dozena erdi lanek osatzen dute erakusketa txiki baina aldi berean tentagarri hau. Ez galdu. <sup>m</sup>

[erretratua]



“Eskolak barrero emotea gustatuko litzaidake, oso esker oneko lana da”

## Igor Elordui > kazetari bat AEKn

**Erromokoa da** Igor Elordui. Getxo eta Leioaren arteko muga egiten duen kalekoa, gainera. Berari Getxoko aldea egokitu zitzaion, baina ez dakigu hori harro egoteko arrazoia den ala ez. Kontuak kontu, urte batzuk dira Elordui-berak 33 dauzka orain- Larrabetzun bizi dela. Edo bertan lo egiten duela behintzat, ordu asko eskatzen duen lanbide horietakoa dauka eta: komunikazio arduraduna AEKn. Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan, Leioak garai istilutsuak bizi zituenean hain zuzen: “Ondo gogoratzen naiz Ertzantza campusera lehenengoz sartu zenekoaz. Ni bigarren mailan nengo”. Ez zen ikasle ona, aitortzen du; edo hobeto esanda, ez zion behar beste arreta eskaintzen karrerari, baina hala ere amaitu egin zuen. Kazetari moduan lan gitxi egindakoa da ordea. Besteak beste, Bizarra Lepoan aldizkariako erredakzioan. “Oso gazte hasi nintzen euskera eskolak emoten AEKn, artean unibertsitatean nembilela, eta apurka beste erantzukizun batzuk ere hartuz joan nintzen: Uribe Kostako arduradun, Nazio Batzordeko kide...”. Azkenik, AEKn geratu zen, eta orain lau urte gaur daukan ardurara hartu zuen. Lau urte, honenbestez, eskola emon barik. Elordui iragan horren mina dauka, esan digunez, “eskolak barrero emotea gustatuko litzaidake, oso esker oneko lana delako. Jendea ezagutzeko aukera aparta emoten du, eta batez ere horren falta daukat”. Baliteke, baina, laster itultzea geletara; izan ere, lau urterako izendatu zuten komunikazio arduradun, eta amaitzeaz dago epea. “Kontratua” barriztuko diote? <sup>m</sup> Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**



### AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailean

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86



# Andra Mari auzo berria; agur, Getxo

**8.368 etxebizitza** (4.700 babes ofizialekoak eta 809 tasatuak) eraikiko dituzte **Martiturri, Arteaga, Azkorri, Saratxaga, Moreaga eta Mimenaga** inguruan; HAPO PTPari egokituz gero

Andra Mari elizaren inguran sortu zuten Getxo herria. Urteak joan, urteak etorri, auzune berriak osatu ziren (Algorta, Areta, Erromo...) eta guztiek osatzen dute gaur Getxo udalerria. Udalerriaren erroek gorde dute ondoen baserri eta landaguneen xarma Andra Mari elizako bazterretan. Bada, gaurko etxebizitzaren arazoa argudio hartuta zonaldea urbanizatzeko aurre-egitasmoa aurkeztu dute.



Argazkian, Getxoko Goierrri

**Getxoko** Hirigintza Plangintza (HAPO) Bizkaiko Foru Aldundiaren Bilbo Metropoliko Lurraldeko Plan Partzialera (PTP) egokitzeak ahalbidetuko du Getxo (Andra Mari) ingurune urbanizazioa. Osoko bilkuran egokitzapen horren aurre onarpena erabaki baino lehen, agiria herritar talde desberdinetan azaldu eta egitasmoa zertan datzan argituko dute, kultur aretoetan erakusketak eta ipiniko dituzte, etab. Gainerakoan, Aldundiaren PTPri dagokionez, behin betiko hilabete bi barru onartuko ei dute eta esaterako zera zehazten du: lurzoruari probetxu gehiago ateratzearen aldekoa da, dentsitate handiko etxebizitzak lehenetsiko dira... eta Uribe Kosta eta Txorierrri izendatzen ditu populazioaren hazkunde gune legez.

**Zertan datza Getxoko egitasmoa** EAJko Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak eta Ezker Batua-Berdeakeko Etxebizitza eta Hirigintza Planeamenduko zinegotzi Iñaki Urkizak adierazi dutenez, "udalerriko hirugarren populazio gune handi bihurtuko da Getxo egitas-

mo honegaz, Erromo-Aretagaz eta Neguri-Algortagaz batera". Bide batez, Urkizak argi adierazi du orain arte urbanizagarritzat zegoen lekuan eraikiko dutela, ez dutela eremu gehiago urbanizagarri bihurtu. Horrela, 8.368 etxebizitza eraikiko lirake Getxon; Martiturri, Ar-

## «Getxok (Andra Mari) 20.000 bizilagun izango lituzke etorkizunean»

tega, Azkorri, Saratxaga, Moreaga eta Mimenaga hartzen dituen zonaldean hain zuzen, 250 hektareako azaleran. Etxebizitza kopuru horretatik 4.700 babes ofizialekoak lirake, 809 tasatuak eta 2.859 libreak. Ondorioz, Getxok (Andra Mari) etorkizunean 20.000 bizilagun izango lituzke; "udalerriko beste leku batzuetatik heldutakoak gehienak", Zarrakoaren esanetan. Bestalde, 3 km-ko bide nagusi bat egingo luke-


te (Andra Mari elizatik Azkorri ikastetxera) eta zeharkako beste bi (bat Zugatzarte lako bulebarrak, lorategi handiakaz).

Osterantzean, Ezkertari EB-Berdeak-en argitalpenak aurreratu duenez, 250 hektareatik 100ean bakarrik eraikiko dira etxebizitzak, gainerakoak berdeguneak izango dira; etxebizitzak gehienez 4 altuerakoak izango dira, eta altuera bakarrekoak (txaletak...) ere egongo dira; itsasertzetik gertuko guneak, Azkorriko pinudiak, paelletako landa... ez ei dituzte ikutuko. m

## Datu batzuk

- **Datorren urteko** erdialdean hasiko lirake urbanizazio lanak (Ezkerti-ren datua).
- **3 km-ko bide nagusia** egingo lukete, beste bi zeharkakoak (bata Zugatzarte lako).
- **Egitasmoa** herriko taldeei azalduko zaie

## Akuarioa berriro ere urez beteta Udalak hartuko du ardura, Aldundiak lagunduta



Itsasugea Abra Aquariumean

**Uztailetik** aurrera Getxoko Udala arduratuko da Abra Aquariumen etorkizunaz. Hil amaieran sinatuko ei dute hitzarmena, horren bidez, Udalak akuarioaren instalazioak erosiko ditu eta kudeaketa eta mantentze gastuak bere gain hartu. Era berean, Abra Aquariumek Getxo Kaia enpresagaz zutikan kontratuaren ardura ere hartuko du Udalak. Hala, horren guztiaren kargu hartzeagatik Getxoko Udalak 1.000.000 euro ordaindu beharko ditu, dena dela honetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren 600.000 euroko diru-laguntza jasoko du. Hasiera batean, hitzarmena 2025era arte egongo da indarrean.

Bestalde, Udalak eta Abra Aquarium elkarte-

ak instalazioen uztiaketarako urtero 200.000 euroko aurrekontua adostu dute; erdia Udalak jarriko du; halaber, aurrean Aldundiak beste 100.000 euro ipiniko ditu Bizkaia Maitea ingurumen hezkuntza-programa aurrera eramateko helburuagaz. Akuarioaren uztiaketa EHUk bideratuko du, eta unibertsitateak 3 profesional kontratatuko ditu alor zientifikoaz eta didaktikoaz ardura daitezzen.

Akuarioan Abrako, Atlantikoko eta itsaso tropikalak 300 espezie daude. Hala ere, Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak aurreratu legez, hasieran galerei aurre egin beharko die, Aldundiaren eskolen dohako programa dela eta, irabaziak nagusien eta familien sarreretatik bakarrik izango direlako. m

## TRAFIKOAN HIRU ADITU KONTRATATUKO DITU UDALAK

Lehiaketa irekiaren bidez, garraioan, trafikoan eta aparkalekuan adituak diren hiru pertsona kontratatuko ditu Getxoko Udalak. Bi urteko lanaldia izango da eta 60.000 euroko aurrekontua izango du. Burutu behar izango dituzten beharrak, berri, egingo diren bide-lanen aurreiazko txostenak prestatu, trafikoan egiten diren aldaketan jarraipena egin, TAOren inguruko erabakiak hartzea etab. izango dira. Lehiaketa publikoa da eta edonork har dezake parte.

## ESKOLA-KIROLAREN PLANGINTZA BERRIA 2006-2007RAKO PREST

2006-2007 ikasturterako Eskola-Kirolaren Plangintza berria aurkeztu dute dagoeneko. Ikasleen gurasoen elkarteek eta herriko kirol taldeek, Getxo Kirolaren eta Foru Aldundiaren laguntzagaz, atera dute aurrera egitasmoa. Urteen artean hezigarriak eta sozializagarriak diren balioak sustatu gura dituzte eta udalerriko 13 ikastetxe publikok eta pribatuk hartuko dute parte.

## SANTA ANA PLAZA BERRITUKO DUTE

641.338 euro inbertituko ditu Udalak Areetako Santa Ana plazaren urbanizatzeko lanetan. Adinen arabera bi gune egingo ditu eta patinatze beste toki bat. Halere, inguru osoa oinezkoentzat bihurtzea eskatzen zuen proposamenak momentuz ez du aurrera egingo. Lanak 2007ko otsailerako amaituta egotea espero dute Udaleko ordezkariak.

Bilatu zure Renault "Km.0" Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

# Euskara

ikasleen artean sustatzeko ahalegina egingo du Udalak

**Eskolaz** kanpoko jardueratan euskara bultzatzeko programa da IKASGEHI. Proiektua euskararen erabilera biziberritzeko udal egitasmoaren barnean dago, herriko beste bi sektorez batera; merkataritzagaz eta gazte taldeakaz, alegia. Ikastetxeetan, haurtzaindegietan, elizetan eta akademia pribatuetan Euskara Zerbitzuak egindako ikerketen arabera, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dituzten erakundeak gero eta prestatuago daude hizkuntza bietan (gaztelaniaz zein euskaraz) ikasleakaz jarduteko. Sektore horiek 0 eta 18 urte bitarteko 7.000 pertsona biltzen dituzte. Ikastetxeetan jarduera gehienak euskaraz egiten dira, baina ikasleek euren artean gaztelaniaz hitz egiten dute. Akademietan, berriz, eragozpenak izaten dituzte euskarazko taldeak osatzeko eta elizetako ahozko komunikazioan gaztelania da oraindik nagusi. Datu horien aurrean, Udalak neurriak hartu ditu arlo bakoitzean eman daitezkeen arazoak konpontzeko. Besteak beste, 35.000 liburuxka banatuko ditu herritarren artean, egindako ikerketaren emaitzak ezagutarazteko, eta aparteko diru-laguntzak emateko deialdia egingo du. m

IKASGEHI programaren kartela



**Alfredo Moraza** > Aranzadiko aditua

“Ez gaude ziur, baina izan daiteke *Castillo del principe* eta fortea gauza desberdin bi izatea”



Alfredo Moraza Galeako fortean

**Aranzadi Zientzia Elkateko aditu taldea apiril amaieratik edo dabil Galeako forteko aztarnak arakutzen eta aztertzen. 6 arkeologoko eta 2 dokumentalistako lantaldeak amaitu ditu dagoeneko garbiketa lanak, Aranzadiko Arkeologia Historikoko departamentuko zuzendari Alfredo Morazak azaldu duenez.**

—Zein da oraingo eginbeharra?

—Prozesu ezberdinak dira, denak doaz modu paraleloan. Nagusia, garbiketarena da. Gero indusketa txiki bat eta kata arkeologiko bat egingo ditugu, oraingo eraikuntza baino zeozer zaharragoa dagoen baloratzeko. Birtartean, dokumentazioa pilatzen ari gara. Prozesua 2 hilekoa da, baina zertxobait luza daiteke. Orain arte, berreskuratutako baina, dagoena azaleratu egin dugu; dena sasiak janda zegoen eta ez zen ezer ere ikusten, ez egitura bat, ez besterik. Orain indusketak egingo ditugu eta orduan ikusiko dugu gauza “berriak” dagoen.

—Mantendu beharrekoak zehaztu dituzte?

—Orokorrean oso ondo kontserbatuta dago. Taberna bat egon zen 40 urtez, 1965era arte edo, eta nolabait zehazki eraikuntza moldatu zituen bere erabilerarako. Horregatik, ba-

daude elementu batzuk aldatu beharrekoak edo bota beharrekoak. Baina hori da orain aztertu behar duguna; behin garbiketa lanak amaitu eta gero, orain bai, ideia garbia edukiko dugu, zer dagoen, zer dagoen sobera, eta zer faltan.

—Forteaz zer esan dezakezue?

—XVIII. mendeko hain ondo kontserbatuta dagoen onena da Bizkai osoan, eta Gipuzkoan ez pentsa askoz gehiago daudenik, ni hangoa naiz eta horregatik diot, onena ez bada onenatariko bat behintzat bada. Bazeuden beste forte batzuk inguruan, Portugaleten, Sestaon, Getxon bertan ere, Begoñakoa... eta Abra edo Bilbo inguru hori gehiago babesteko beste bat eraikitzea erabaki zuten 1742an. Geroxeago obra batzuk egin zituzten, XVIII. mende bukaeran eraiki zuten lehenengo itsasargia, erdiko dorretxo hori, XX. mende hasieran eraman zuten

**«Lehenengo itsasargia XVIII. mende amaieran eraiki zuten fortean; eta XX. ean aldatu»**

orain dagoen tokira. Baina dokumentazioaren arabera, Galean XVI. mendetik egon da talaia edo zaintza elementu bat. Seguraski askoz xumeagoa, baina toki estrategikoa denez, beti egon dira, gerra momentutan goarnizio bat zegoen hori babesteko. Bestalde, ez dugu hain garbi “*Castillo del principe*” eta forte hau gauza bera direnik, edo 2 forte desberdin. Ematen du 2 forte egon zirela Galean, bati “*Castillo del principe*” deitzen zioten, besteari Galeako Forte edo *Fuerte Mayor*. Baliteke biak nahastu izana, baina oraindik ez dakigu dokumentazio lanak ez direlako bukatu. Bizkaiko ondare bezala elementu oso interesgarria da, komeni da berriro errekonstruzioa. Orain dela urte batzuk planteatu ziren zenbait ideia itsas museoa, astronomia behatokia... horrelakoak egiteko, baina hor gelditu ziren. Ia ekintza honen ondoren horiek edo beste batzuk egingen diren, hori Udalak erabaki beharko du. m

# Balkoitik balkoira

jardungo dute bertsoetan **Andoni Egañak** eta **Xabier Paia** hilaren 16an



Argazkian, Xabier Paia

**Algortako Bertsolari** Eskolak (ALBE) eta Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen duten Balkoitik Balkoira bertso-saioa ekainaren 16an, barikua, egingo dute aurten.

Bertsolaritzaren historiari men eginda, balkoitik balkoira moduak 1802an dauka mugari; Tolosan urte hartan hasi ei zen balkoitik balkoirako bertso-saioak egiteko tradizioa. Oterantzean, bertso-saio mota berezi hori berreskuratzeke asmoz ALBEkoek 1998an San Nikolas plazan egiten zuten lehenengo eginahala. Hala, aurtengo ekitaldia, azkenengo urteetan egin legez, Portu Zaharreko (Algorta) Etxetxu plazak hartuko du gaueko 10:00ak aldera. Bertsolariak oholtza gainean, mahai baten inguruan, zein areto itxietan ikustera eta entzuteratuta gauden honetan, xarma berezia barreiatzen du ber-

tsolari bat balkoi batean paratuta eta bestea horren aurrean (hala-moduzko) beste balkoi batean ikusteak eta entzuteak, elkarri erantzunez, elkarri zirikak, bata besteagaz lehian... Eta oraingoan gitarariek iragarri dituen protagonistak ezagututa, Andoni Egaña eta Xabi Paia, benetan hartu-eman eta ikuskizun eder eta zingor denik zalantzarik ez eduki; herriko semeak seguru txapeladuna nekaraziko duela.

**Ipar Uribeko txapelketa**

Orain dela hamabost egun inguru Ipar Uribeko VI. txapelketa egin zen Aretan. Txorierr, Mungialdea eta Uribe Kosta eskualdeek osatzen dute Ipar Uribe. Txapela Paiaarren txikiak, Itxasok, bururatu zuen eta txapeladunorde Ekaitz Larrazabal *Katxo* algortarra izan zen. m

## XIII. GETXOTAR DANTZA EGUNA

Herriko dantza akademietako 4 eta 20 urte bitarteko ikasleen koreografiak erkutsiko dituzte Getxo Antzokian, ekainaren 17an (zapateria) eta 18an (domeka). Sarrera gonbidapen bidez izango da eta saio bi eskainiko dituzte egun bakoitzean: bata, 12:30etan eta, bestea, 19:00etan.

## XXVI. ESKOLA ANTZERKI JARDUNALDIAK

Ikasturtean zehar udalerriko eskolek, DBH zentroek eta ikastola publikoek GUABE elkartearen antzerki tailerretan egindako lanak erakutsiko dituzte ekainaren 10ean (zapateria) eta 11n (domeka), Getxo Antzokian. Zapatuan, saio bakarra eskainiko dute, 17:00etan. Domekan, aldiz, bi aukera izango ditugu: 11:30-14:00 eta 17:00-19:30.

## VASCO-NAVARRO TRENAREN IBILBIDEA BIZIKLETAZ

Leintz Gatzagatik Lizarraraino doan Vasco-Navarro trenaren ibilbidea bizikletaz egiteko txangoa antolatu du EGIZU Getxo Euskaldun! elkarteak, ekainaren 24 eta 25erako. Algortatik autobusez abiatuko dira Leintz Gatzagara. Gasteizen geldialdia egingo dute gaua pasatzeko eta, bide batez, katedrala bisitatzeko. Izena emateko epea ekainaren 16ra arte dago zabalik.

## SAN INAZIO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Algortako San Inazio jaien kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Jai Batzordeak. Lanak ekainaren 8an entregatu beharko dira, Villamonteko kultur etxean. Jai Batzordeko epaimahaiak aukeratzeko duen irudiaren egileak 300 euro jasoko ditu eta, gaia askea bada ere, “Algortako Iñaki Deunaren jaiak 2006”, “uztailaren 28tik 31ra” eta “Jaietan ere euskaraz!” dira agertu beharreko leloak.

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-  
na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**VIEJO**

kopak eta giro jatorria

Alangobarr, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



## Leioa Saskibaloian 2006

Ikasturteari amaiera emateko bi eguneko jaia antolatu dute Leioa Saskibaloia Taldekoek **ekainaren 3 eta 4an**

**Hilaren 3an** eta **4an** *Leioa Saskibaloian 2006* jaia ospatuko dute Txomin Aresti ikastetxean eta Kandelazubieta kiroldegian. Azken urteetan bezala, Leioa Saskibaloia Taldeak hil honetan ikasturte bukaerako jaia antolatu du saskibaloia inguruan. Herrian kirol honetan jarduten duten ume, guraso eta saskibaloia zaleak biltzea eta kirol

### «Herri bazkaria eta makina bat partida egongo dira jaialdian»

honetaz gozatzea da ospakizun honen helburua. Asteburuan zehar izango dira ekitaldi nagusiak, zapatuan txapelketak eta domekan herri bazkaria. Ekimenaren arrakastaz hitz egin digu Igor Urretak Leioa SBTko kidea: *“Adibidez, iaz 270 pertsonentzako bazkaria eman genuen”,* eta aurten ez dute gutxiagorik espero. *Leioa Saskibaloian* Saskibaloia Taldeak antolatzen badu ere, Txomin Aresti, Barandiaran eta San Bartolome Eskolen Guraso Elkartearen eta Udaleko Kirol Zerbitzuaren laguntza ezinbesteko izan da ospakizun hau antolatzeko.

Aurten egingo den kirol jaiak badu berrikuntzarik aurreko urteekin alderatuz. Larunbatean ohikoa den txapelketa eredu-taldeak gonbidatu eta txapelketatxoak jokatzea- alde batera utzi eta eredu berria asmatu dute: saskibaloia maratoia. Igor Urreta



Txomin Aresti ikastetxeko jokalariek gazteak

antolatzaileak argitu digunez asteburuko umeek bizi duten lehiakortasun hori egun batez ahantz dezaten nahi dute. *“Xedea ondo pasatzea izango da, nahikoa lehia izaten dute umeek asteburuko”.* Horregatik talde guzti-taldek jokalariek nahastuko dituzte, adinari zein sexuari begira, bi talde nagusi sortzeko. Nor-gehiagokak aldi berean jokatuko dira lau zelaietan eta markagailu bakarrarekin. Bi talde nagusi horietatik aterako da jaiko txapelduna saskibaloia maratoia jokatu eta gero.

Domekan hiruko jaurtiketen lehiaketa, beterranoen norgehiagoka eta herri bazkaria egingo dituzte Kandelazubieta kiroldegian. Txomin Aresti, Alzaga, Barandiaran, Betiko Ikastola eta Leioa SBTko jokalariek hartuko dute parte eta deia luzatzen diote saskibaloia gustatzen zaion orori.

Saskibaloia protagonista izango da ekainaren lehenengo asteburuan, giro ona eta saskiratzeak ziurtatuta daude. m

## Txitxibumuntzi Eguna

ospatuko du lehenengoz Berbalamiñe Euskara Elkarteak San Bartolome auzoan ekainaren 11n



Leioaztar taldea aspaldiko txitxibumuntzian

**Leioan** eta beste herri askotan udaberriari ongi etorria emateko jaia zen Txitxibumuntzi Eguna. Neguko hotzak joanda inguruko base-rietako bizilagunak batzen ziren hondartzara edo mendira irteera egiteko. Bertan trikitiaren musikaz girotuta burruntzian erretako txerriak jan eta dantza egiten zuten. Oraingoan, Berbalamiñe Euskara Elkarteak ohitura zahar hori berreskuratu nahi du leioaztarrentzat. Ekimenaren antolatzaile Arantzi Sarasolaren esanetan jaiaren bitartez herriko euskaldunak batu nahi dituzte: *“Guk ohitura zahar hori berreskuratu nahi izan dugu, baina, beste ukitu bat eman-enez. Udaberriari ongi etorria emateko baino, guk pentsatu dugu ikasturteari bukaera eman eta urtean zehar euskararen aldeko egindakoak ospatzeko izatea”.*

Erandioko Berbots Euskara Elkarteak antolatzen duen Kanpomartxo eredu hartuta antolatu dute Txitxibumuntzi Eguna. *“Ideia polita iruditu zitzaigun, horrela, herriko euskalgintzako enagile guztiekin hitz eginda horrelako jai bat egitea pentsatu genuen”.* Oraingoan laguntzeko prest agertu dira herriko Udal Euskaltegia, dantza taldeak (Txikiak, Gure Ohiturak), San Bartolomeko Jai Batzordea, San Bartolomeko kultur etxea, Auzotarrok elkarte eta AEK.

Aurten San Bartolome auzoan ospatuko da Txitxibumuntzi eguna ekainaren 11n. Goizetik hasita arratsalde partera arte kalejira, txitxibumuntzia, umeentzako puzgarriak, eskal dantzak, “Larrain dantza” (denok parte hartzeko), herri bazkaria eta erromeria egongo dira eguna euskal giroan pasatzeko. m

## BERRIKUNTZAK ONDIZ AUZOAN

Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean behin-behineko aldaketa onetsi du Ondiz auzorako. Berrikuntza honek 188 etxebizitzaren eraikuntza ekarriko du, horietatik 76 Babes Ofizialekoak. Etxe berriak bi kokagunetan, Aldapa Auditorio atzealdean eta Ondiz inguruan, aurreikusita daude. Horrez gain, Ondizko baseliza inguruko berdegunea handitu eta Barandiaran Institutu berria eraikiko dute Mercedarias Ikastetxe ondoan. Erabakia Bizkaiko Aldundiak berretsi beharko du Plan Orokorreko aldaketa hau behin betikoa izan dadin.

## JAI PARTE HARTZAILEAK TXORIERRI AUZOAN

Ikasturte bukaera heldzearekin batera herri eta auzoetako jaiak nonahi ospatzen dira. Ekainaren 2, 3 eta 4an Txorierri auzoak hartuko dio lekukoa Lamiakori (maiatzak 26). Egun hauetan auzotar guzti-taldek jarduerak antolatuko dituzte. Besteak beste, bolo txapelketa, txalaparta, txapela jaurtiketa, herri krosa, txiki-txiki puzgarriak eta jolasak, gozogintza lehiaketa, kontzertuak eta hainbat ekintza gehiago, batez ere, auzotarren parte hartzea bultzatzeko.

## JAI HERRIKOEN ALDE SINADURA BILKETA

Udondo, Pinueta, Txopoeta eta Miradoreko jai batzordeek, dozenaka tabernarik eta San Juan jaietako txosna gunea dinamizatzen duen Maritxu Teilagorri taldeak, (aurki Jai Batzorde gehiago gehituko dira) jai herrikoien aldeko kanpaina abiarazi dute. Maiatzaren 26an, Lamiakoko jaietan hasi zen ekimena eta irailaren 29ra bitartera herriko jaietan presente izango da. Sustatzaileek azken urteotan jai batzordeek bizi izan duten egoera larria kaleratu nahi dute eta jai herrikoiak garatzeko egungo sistemak ez duela balio aldarrikatzen dute. Udalari jai herrikoiak babes ditzala eskatzen diote.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

ERROTULOAK

THE BEST

ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK  
egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## [erandio]

**Berdinean Euskaraz****Euskaraz hainbat zerbitzu eskaintzeko zerrendak ireki ditu Erandioko Euskara Zerbitzuak**

**Erandioko Udalak**, Leioako Udalagaz eta Txorierriko Mankomunitateagaz batera, Berdinean Euskaraz programaren bigarren edizioa jarri du martxan. Beraz, kanpainak izan zuen arrakasta ikusita, ume zaintzaile, kirol begirale, aisialdiko begirale, aurkezle eta klase partikularrak ematen duten pertsona euskaldunek zerrenda batzuetan izena eman

**«Euskara herriko eremu guztietan hedatzea da ekimenaren helburua»**

dezaten deialdia egin dute. Ekimenaren helburua euskara herriko eremu guztietan hedatze bideak zabaltzea da.

Esan bezala, joan den urtean erantzuna oso ona izan zen, hainbat herritar prest agertu zen-eta programan parte hartzeko. Halere, eskaria eskaintza baino handiagoa izan ohi da eta aurten ahalik eta jende gehienarengana heldu gura dute. Iaz, esate baterako, 218 izan ziren egindako eskariak.

Zerrendan bere izena eman gura duenak Udaleko euskara zerbitzura joan besterik ez du. Bertan, curriculuma utzi eta fitxa bat bete beharko du (ekintza bat aukeratu edo guztietara aurkez daiteke). Gauza bera egin beharko du eskaintzen diren zereginetarako norbait behar duenak eta ataza horretarako izena eman dituztenen datuak emango zaizkio.

Proiektuan parte hartzen duten udal guz-



Ume talde bat Erandioko Bordatxu; behean, deialdiaren kartela

tiel konpartituko dituzte datuok, hartara, beraien erabilera egokiari buruzko indarrean dagoen araudiari atxikita daude eta ematen diren helbururako baino ezingo dira erabili.

Horrez gain, udalok argi utzi gura izan dute bitartekaritza lana baino ez dutela egingo, hau da, interesdunei zerrenda bakarrik helaraziko dietela. Gainerakoak (ordutegia, soldata, baldintzak...) lana eskaintzen duen pertsonaren eta zerrendan izena eman duenaren artean adostu beharko dira. m

**Suediagaz elkarlanean**

Erandioko Udalak lankidetzak hitzarmena sinatu du **Lidköping** udalerriagaz



Erandioko eta Lidköpingeko agintariak

**Erandioko** eta Lidköpingeko (Suedia) udalek lankidetzan jardungo dute ingurumen, demokrazia parte hartzaile eta immigrazio arloetan. Horretarako, hiru hilabete epea jarri dute udalek lantaldeak finkatzeko eta baliteke hitzarmenak hartzen dituen arloetako adituen elkar trukaketa egitea. Halaber, irekita geratu da kultura arloan elkarlanean jarduteko hitzarmena sinatzeko aukera eta, horrela, udalerrri bien ohiturak ezagutarazi.

Erandiok LivCom Award 2005 saria irabazi zuen, 20.000 eta 75.000 biztanle bitarteko kategorian, eta Lidköping bigarren geratu zen joan den azaroan A Coruña. Sari horiek NBEko babesak dute eta bizigarriagoak izateko ahalegin handie-

nak egin dituzten hiriak aintzat hartzen dituzte.

Beraz, ekitaldi hartan erabaki zuen Suediako herriko ordezkariak batek apirilaren amaieran Erandiora bisita egitea eta egun horietan udalerrietako ordezkariak hitzarmena sinatu zuten.

Bisitari, Erandioko Udalaren funtzionamendua ezagutu zuten suediarrek eta alderdi politikoakaz, EUDELegaz eta Bilbao Metropoli30eko ordezkariak biltzeko aukera eduki zuten.

Horrez gain, aisiarako eta turismoa egiteko tartea izan zuten eta, besteak beste, Akarlandako parkea, Martiartu dorrea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Erandio Goikoako eliza bisitatu zituzten. m

**OSASUN ZENTRO BERRIA ERAIKIKO DUTE ASTRABUDUAN**

Udalak 700 metroko orubea eskainiko dio Osakidetza, Astrabuduko auzoan osasun zentro berria eraiki dezan. Anbulatorioa Mezo kalean egongo da eta lanakaz hurrengo urtean hasi da esperatu du Udalak. Bestalde, zonalde berean dagoen 405 metro koadroko lursaila azpiegitura kulturalak eta sozialak hobetzeko izango dela jakinarazi du. Halere, horien erabilera zehatza oraindik argitzeke dagoela nabarmendu dute hirigintza arlokoek.

**ATEGORRI-TARTANGA INSTITUTUA SARITU DUTE FILM LABURREN JAIALDIAN**

Ategorri-Tartanga Institutuko Ikus-Entzunezko Eskolak saria eskuratu du Erandioko III. Film Laburren Jaialdian, *El Pañuelo Rojo* dokumentalagaz. Lehiaketak hiru kategorian izan ditu: dokumentalak, umorezkoa eta ikus-entzunezko eskolak. Sevillako Juan Jose Poncek lehenbiziko saria eskuratu du dokumentalen kategorian, *Sevilla City* lanagaz. Umorezko kategorian, berriz, Madrildgo Isabel De Campo irten da garaile *Espermatozoides* filmagaz eta, azkenik, Gorka Kobeagaz ikuslearen saria eskuratu du *Eramos pocos* laburragaz.

**ERANDIOKO MERKATARIAK OMENDUKO DITUZTE**

Erandioko Merkatarien Elkarteko XXV. urteurrena ospatzeko, herriko dendariak omenduko dituzte ekainaren 15ean Alzagako udal azokan. Horretarako, Erandioko kaleen zein denden irudiak apainduko dituzte azokako hormak. Horrez gain, herriko bezeroen eta erosleen fidelitasuna saritzeko, auto bat zozkatuko dute. Horrela, elkarteak osatzen duten 97 lokalek 70.000 txartel banatuko dituzte ekainean zehar. Zozketa ekainaren 30ean izango da, metro parean.

**A Arasa**  
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**Egunkariak prentsa eta aldizkariak**  
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

**ARLAN**



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz



## HERRITARRENTZAKO BLOGA SORTU DU UDALAK

Europa Press agentziak martxan jarritako "Blog bat hiritar bakoitzarentzat" kanpainaren harira, Koaderno Hiritarrak ekimena kaleratu du Sopelako Udalak. Herritarren artean teknologia berrien erabilera, adierazpen zein informazio askatasuna eta partaidetza bultzatzea da proiektuaren helburua. Beraz, auzokideek eta elkarteek egunkari propioa sortu ahal izango dute Interneten: [www.hiritarrok.net](http://www.hiritarrok.net). Koaderno Hiritarrak erabiltzen lehenengoetarikoa Javi Casas Athleticeko jokalaria izan da.

## "EUSKARAZ OLGETAN" ANTOLATU DUTE LARRABASTERRAN

"Euskaraz Olgetan" programaren barnean, umeentzako hainbat ekintza antolatu du ekainerako Uribe Kosta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Larrabasterran. Ekainaren 9an, esate baterako, "Herria ezagutzen" tailerra jarriko dute martxan. Ekintzaren helburua euskaraz harremanak sendotzea eta sormena lantzea izango da. Horretarako, ume guztien artean mural erraldoi bat sortuko dute. Hilaren 16an, berriz, "Sahara ezagutu" ekimenaren txanda izango da: giro euskalduneari Saharako jolasak erakutsiko dituzte bertatik etorritako umeak eta, bidez batez, haurrek elkar ezagutzeko aukera paregabera izango dute.

## 170 PERTSONEK EGIN DUTE IGERIAN SAHARAREN ALDE

Joan den maiatzaren 20an, 170 pertsonak hartu zuten parte udal kiroldegian egin zen Sahararen aldeko 24 orduko igeriketa solidarioan eta, guztira, 6,6 kilometro egin zituzten. MUSek (Moreagako Ugerzaleak Igeri Kirol Elkarte), Sopelako Igeriketa Taldeak eta Sahararen alde lan egiten duen Nuyum elkarteak antolatu zuten ekimena eta batutako dirua basamortuan izandako uholdeek etxebizitzetan eragindako kalteak konpontzeko eta eskolak berreraikitzeko erabiliko dute.

## Emakumeen Bira

Sopelan izango du irteera eta helmuga tximindularitza lasterketako **bigarren etapak**



Ekainaren 9an pasatuko da Bira Sopelatik. Argazkian, Fabiana Luperini

**Ohi legez,** Emakumeen Birak euskal tximindularitza eman duen kirolari esanguratsuenetakoa den, Joane Somarribaren, jaioterria bisitatuko du aurten ere. Hilaren 9an, barikua, Biraren 2. etapa Sopelan hasi (16:00) eta Sopelan amaituko da; Urduliz, Lemoiz, Plentzia, Barrika, Maruri... inguruetatik tximindulariek ia 89 km egin ostean. Hala ere, aurreko egunean hasiko da XIX. Emakueen Bira Iurretan, eta udalerriri hori eta Elorrio arteko ibilbidea (73 km) edukiko du lehenengo etapak. Hirugarren etapa, ekainak 10, bitan banatzen da: goizean Iurreta-Goiuria erlojupekoa eta arratsaldean Urruñia-Urruñia (97 km) tartea.

Bilbok hartuko du Biraren azkenengo lasterketa hilaren 11n, larunbata, eta tximindulariek 107 km-ko ibilbidea bete beharko dute; hiruburu barrutik, Etxebarritik, Arrigorriatik, Laudiotik, Artziniegatik, eta Galdakotik pasatuko da tropela.

Biran 17 bat andrazko tximindulari taldek parte hartuko dute: Euskal Herriko 4 talde, Italiako 5, Holandako 3 eta Frantziako, Alemaniako, Txinako, Madriliko eta Suitzako banak. Besteak beste, Luperini, Nicole Brandli, Eneritz Iturriaga, Ziliute, Ljungskog, Bubnenkova, Miho Oki eta Theresa Senff ikusi ahal izango ditugu bizikleta gainean. <sup>m</sup>

Lorea Anakabe > Tindoufen egondako erizaina

"Osasun egituraren laguntzera joan gara, erizainei edo emakume laguntzaileei formazioa ematera"



Ausserdeko (Tinduf) errefuxiatu kanpamendu liberatuetan eman ditu orain dela gutxi 15 egun

**Lorea Anakabe** sopoloztarrak hamabostaldi bat eman du sharaiuen errefuxiatu kanpamendu liberatuetan. PTM Mundu bat erakundeagaz abiatu zen 29 urteko erizaina Tindufera pasa den maiatzean. Handik bueltan han bizitakoak eta eginbeharrak izan ditu berbagai. "Ausserdeko wilaian (probinzia) 6 bat daina ("herriska") daude eta gu bertako ospitalean eta osasun zentroetan ibili gara".

Euren egitekoa hango osasun egiturari laguntza ematea izan dela azaldu du Anakabek: "Formazioa edo prestaketa ematera joan gara, erizainei eta osasun zentroetan laguntzen duten emakume saharauiei, auziliarrei-edo... eta Erizain Eskolan ere egon gara". Botikak bidaltzea beharrezkoa dela aldarrikatu du, "kanpotik bidali behar dira han ez daukatelako zelan eskuratu eta behar-beharrezkoak dituzte". Halere, kanpo-laguntzaren inguruan ere zera ondorioztatu du erizain sopoloztarrak: "Kanpotik helitzen zaien laguntzaren guztiz menpean bizi dira, dependentzia osoa daukate; helitzen den bitartean ondo eta ailegatzeko ez denean, bada, itxoin besterik ez

dute egiten, zain egon heldu arte".

Euren arteko elkartasunak benetan hunkitu du Anakabe, "adibidez batek arroz plater bat daukala berarentzat, bada besteak ez badauka erdibana egingo dute beti edo batzuen artean banatu, nik ikusitakoaren antzera umeek ez daukate desnutriziorik; harriagarria da, daukaten apurra ere zurekin banatzeko prest daude, zuri ere eskaintzen eta ematen dizute. Han zaudenean konturatzen zara gutxirekin ere bizi daitekeela, eta hain gutxi edukita ere zoriontsuak

### «Kanpo laguntzaren dependentzia osoan bizi dira»

dira, barre egiteko gai... gutxi hitz egiten dute gatazkaz, beti buruan daukaten arren egunean eguneko bizi dute, horrela egin behar dute, baina batzuetan ahalegintzen dira gatazka azaltzen". Uholdeen eragina ere ikusi du, "besteak beste, eraikinak-edo urak suntsitu bezala daude, jausita, eta inork ez du berreraikitzeko edo konpontzeko asmorik". <sup>m</sup>

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
  - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
[didakhamilton@euskalnet.net](mailto:didakhamilton@euskalnet.net)

## ALERGIA

Cristian Amezaga Asensio  
Sendagilea - Alergologoa

## RINITIS ASMA URTIKARIA

Poliklinika Euskal Herria  
Euskal Herria Kalea, 22  
48991 Algorta-Getxo  
Telef.: 94 491 34 62  
I.M.Q.

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

# LAIKAK

## Taberna

Bentatxu, 2  
48600 Sopela

## Zatoz gure tabernara!

**ARABA EUSKARAZERA JOATEKO AUTOBUSA ANTOLATU DUTE**

Ekainaren 18an Armentian ospatuko den Araba Euskaraz ikastolen jaiera joateko autobusa antolatu du Kultur Etxeak. Irteera 9:30ean izango da, Berangoeta kultur etxetik bertatik. Erroldatuta daudenek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta erroldatu gabeez, 8 euro. Izena eman gura duenak ekainaren 15era arte dauka.

Informazio gehiago: 94 668 21 43

**UDA GAZTEA 2006 PROGRAMAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK**

Berangoko Gaztelekuak ekintza bereziak antolatu ditu udarako, zehazki, uztailearen 3tik 21era arte doan eperako. Uda Gaztea 2006 dauka izena egitasmoak eta 13 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Besteak beste, graffiti tailerra, zine tailerra, Gamarrako igerilekuetara irteera, surf ikastaroa, kayak ibilbidea eta ur ginkhana prestatu dute. Izena emateko epea ekainaren 11ra arte egongo da zabalik. Hilabete osorako izena emanaz gero, 40 euro ordaindu beharko dute erroldatutakoek eta 70 erroldaturik ez daudenek. Halaber, izena ekintza bakarretarako edo batzuetarako soilik emateko aukera dago.

**MULTIABENTURA CORNEJON**

Multiabenturako txangoa antolatu du Berangoko kultur etxeak ekainaren 30erako. Ekintzak Cornejon (Burgos) burutuko dira: espeleologia, eskalada, tirolina, arku tiraketa, soka askatua... Irteera 10:00etan izango da Berangoetatik; itzulera, berriz, 20:00etan. 6 eta 12 urte bitarteko umeek hartu ahal izango dute parte eta izena emateko epea ekainaren 23ra arte egongo da zabalik. Erroldatutakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta erroldaturik ez daudenek 12 euro.

Informazio gehiago: 94 668 11 79

**Kultura Jardunaldien** bigarren txanpari eusteko ekitaldiak gogotik!



Txakolin Eguna ospatuko dute ekainaren 11n

**Ekuatorearen** bero-beroan daude Kultur Etxe, elkarte eta talde berangoztarrek prestatu dituzten VIII. Kultura Jardunaldiak, eta oraindik badaude gozamina hartzeko kirol eta kultur ekimen andana.

Maiatza ekitaldiz beteta igaro ostean, ekaineko egitarauak ere beste horrenbeste iragarri du. Hileko lehengo aste-akabua Aste Berdearen lantegiak eta haur parkeak osatuko dute; bitartean Oskorrik eta Kukubiltxoren *Doktor Do Re Mi* ikusizuna gozatzeko aukera ere egongo da (hilaren 3an, 19:00etan Frontoian) eta ACADA taldeak *“La Dama de Alba”* antzerki lana oholzaratuko du (hilaren 4an, 19:30ean Frontoian). Hurrengo domeka zale asko batzen

dituen Txakoli Egunaren hitzordua izango da (hilaren 11n, goiz guztian zehar Sabino Arana kalean), berangoztar jatorriko edari beilegi zapo-etsua ahoratzeko aukera paregabea. Ondorengo barikuan idi probek hartuko dute lekukoa eta lau eguneko dema izango dute apustu-zaleek (hilaren 16, 17, 19 eta 20an, 21:00etan probalekuan). Txirindulak ere badauka lekua Kultur Jardunaldietan eta Bike Trial Show edo mendiko bizikletako erakustaldia egingo dute (hilaren 17an, 20:00etan eskolan). Ostean, Musika Eskolaren entzunaldia iragarri dute (hilaren 22an, 18:00etan Berangoeta kultur etxean). Eta ekainaren 23ko gau magikoa ospatzeko San Juan sua, jirafen kalejira, txokolata, erromeria eta txahal erre jana prestatuko dute (Berangoeta kultur etxean 20:00etan, eta Lantzarte parkean 21:00etan). Hala, Jardunaldiei amaiera biribila emateko ezin ahaztu Erdi Aroko azokaren zita (hilaren 24 eta 25ean Moreaga parkean, 12:00-14:00 eta 17:00-22:00). Gozatzeko aukerak ez dira faltako, hainbat koloretako ekitaldiak aurreikusten dira Berangon eta hitzorduek ipinita daude, berauek gozatzeko zuen esku. m

**Jarduera batzuk**

- **Doktor Do Re Mi.** Hilak 3, 19:00. Frontoia.
- **Txakoli Eguna.** Hilak 11, goizean zehar. Sabino Arana kalea.
- **Idi probak.** Hilak 16, 17, 19, 20. 21:00. Probalekua.
- **Bike Trial Show.** Hilak 17, 20:00. Eskola.
- **Erdi Aroko azoka.** Hilak 24 eta 25. Moreaga.

**Estibalitz Anitua** > Mankomunitateko berdintasun teknikaria

“Planak egiten dira hirigintzan, kulturean... eta berdintasunerako ez? Bizkortzeko ordua dugu!”



“Herri bakoitzeko errealitatea aztertzea da lehenengo egitekoa”, eta horretan dihardu Anituak

**Hilabete** eskas daroa lanean Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun teknikari Estibalitz Anituak. Historian lizentziaduna eta berdintasun agente eta dokumentazioan espezializatua da. Emakume liburutegi batean egiten du behar, eta hainbat udalekin ere jardun du, barbarako, Zierbena, Ermua, Berango... eta Aldundiarekin ere bai. Anituaren eginkizuna 7 Berdintasun plan osatzea da, Mankomunitateko herrientzat bana. “Berangon eta Sopelan egin dute zerbait, baina beste udalerriek iste dut ez daukatela ezer”, azaldu du. Lehenengo egitekoa herri bakoitzaren egoera aztertzea da, eta horretan dihardu teknikari berriak, “emakume elkarteekin harremanetan jartzeko asmoa ere badaukat, egitekoa azaltzeko, balere, bestelako elkarrekin ere jardun behar dugu”. Ikerketa egin eta gero, helburuak lortzeko aurrera eroan beharreko ekintzak zehaztuko dituzte, “sensibilizazio kanpaineekin hasiko gara; ez da bakarrik emakumeekin lan egitea, edo ikastaroak antolatzea, hori baino gehiago da, politi-

kak garatu behar dira administrazioan, eskolatan, kirolean, hirigintzan...”. Horren albotik, herri bakoitzaren errealitatea kontuan hartzeko da, “7 herri dira bata bestearengandik oso ezberdinak; hala, plangintzek ere desberdinak izan beharko dute”. Planek iraileko eginda egongo behar dutela aurreratu du Anituak eta urte bateko iraupena izango dutela, “legealdia amaitu arte”.

**«Planek irailerako osatuta egon behar dute, eta urtebete iraungo dute»**

Amaitzeko, Anituaren aldarrikapena haxe da: “Politika hauek beharrezkoak dira, herri guzti-guztietan, egiten dira politikak hirigintzan, kulturean... eta berdintasunerako ez? Esnatzeko, bizkortzeko ordua dugu; emakumeak gizartearen erdia gara eta oraindik badira desberdintasunak... arduradunek uler-tu behar dute behin plangintza onartu ostean, kontua ez dela hor amaitzen; gainera, gerora egoera berrietara egokitu beharko dute. m



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

**cianoplan Reprografía**

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiatu kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak
- ermarkaketak



## INGURUMEN MINISTERIOAK HONDARTZAKO LANAK LIZITATU DITU 7,1 MILIOITAN

Gorlizko eta Plentziako hondartzak berreskuratzeko lanak lizitatu ditu Espainiako Ingurumen Ministerioak, 7,1 milioi euro baino gehiagotan. Lanak egiteko epea 18 hilabetekoa da eta gauzatuko dituzten ekintza batzuk hurrengoak dira: Sanatoriotik Astondorako bidea desagerrarazi, zerbitzuetarako 3 eraikin egin, 2 sorospen-postu ipini, ia 2,5 km-ko pasealekua eratu... Hala, hondartzak 61.475 metro koadro berreskuratuko ditu.

## URDULIZKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Kultur Etxeak Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu du aurten ere. Lanak entregatzeko epe-muga hilaren 10a da eta irabazlea hilaren amaieran jakinaraziko dute. Irabazlearentzat 400 euroko saria dago, herritarrek aukeratutako lanarentzat 100 euro, eta urduliztar kartel onenarentzat beste 100 euro.

**Informazio gehiago: 94 676 36 31**

## EUSKARAREN ZALANTZAK ARGITZEKO TELEFONOA

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskararen gaineko zalantzak (ez testuen itzulpenak) argitzeko telefono zerbitzua ipini du martxan. Astelehen, eguazten eta eguenetan dago erabilgarri (17:30-19:00) eta hurrengo da: 652 773 780.

## URIBE KOSTA

### II. Amarratsak Astea ekainaren 5etik 10era



Argazkian, ekitaldiaren kartela

**Orain dela** urte bi sortu zen Amarratsak kolektiboa eta aurten ere Amarratsak Astea antolatu dute. Hala, *"Alternativas al modelo policial y penitenciario"* hitzaldiagaz emango diote hasiera asteari hilaren 5ean (20:00, Ganearri gaztetxea, Sopela). Bigarren egunerako *"Tropikales y Radikales. Experiencias alternativas y luchas autonomas..."* liburuaren aurkezpena, eztabaida eta bideo emanaldia iragarri dute (19:00, Itzurbaltzeta gaztetxea, Erromo). Eguaztenean *"Es-kualdean egiten dabilzan proiektu txikitzaileen kontrako borroka"* berbaldia egongo da (20:00,

Txorimalo gaztetxea, Getxo). *"Mugimendu sozialen bilakaera azken hamarkadetan"* eztabaidarako deia egunerako luzatu dute (19:00, Udondo gaztetxea, Leioa); eta bari-kuko egitaraua hauxe da *7 dias de lucha social* bideo emanaldia eta Grado kosmetiko eta Dalektpego kantautoreak (20:00, Txorimalo). Amaitzeko, zapatuan Eran-dioko superkuartelaren aurkako 7. bizikleta martxa egingo da, herri bazkaria eta Lehiotikan eta Des+karadasen kontzertuak (20:00, Itzurbaltzeta). m

# Ekai. 3 - 18

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

- ▶ **Ehoziri lanak.** Algortako erakustaretoa. Ekainaren 5etik 9ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.
- ▶ **Arte aplikatuak.** Erromoko erakustaretoa. Ekainaren 5etik 9ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:00.

### SOPELA

- ▶ **Pintura erakusketa: Abdelaziz Benkhay** Udaletxea. Ekainaren 5etik 17ra. 16:00-21:00.

### URDULIZ

- ▶ **Pintura erakusketa: Umeak** Kultur Etxea. Ekainaren 1etik 10era arte.
- ▶ **Urdulizko Jaiak. Andramari 2006** Kartel erakusketa. Kultur Etxea. Ekainaren 13tik 29ra arte.

## ANTZERKIA

### GETXO

- ▶ **XXVI. Eskola Antzerki Jardunaldiak.** Getxo Antzokia. Ekainak 10 eta 11. 11:30-14:00 eta 17:00-19:30.

### LEIOA

- ▶ **Yo tengo sexo, evidentemente.** Belladona. Umore Azoka. Kultur Leioako Auditoriuma. Ekainak 3, zapatua. 00:30. Sarrera: 10 euro.
- ▶ **Humorama.** Spasmo. Umore Azoka. Kultur Leioako Auditoriuma. Ekainak 4, domeka (zapatua gaua). 01:00. Sarrera: 10 euro.
- ▶ **El vendedor del mundo.** Musikala. Kultur Leioako Auditoriuma. Ekainak 9, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.
- ▶ **Andersen ahatetxo itsusia.** Umeentzako antzerkia. Kultur Leioako



### ▶ Hitzaldia

### Azterria bidaia bat zelan prestatu

Ekainaren 8an, Algortako kultur etxean, atzerrira bidaia bat zelan prestatu erakutsiko digute Eneko Tejada eta Denis Mitxelena bidaiari eta abenturazaleek. Horretarako, 2005eko udan Laostetik (Asiako hego-ekialdea) zehar tximindulaz egindako bidaia hartuko dute oinarritzat eta horren inguruko bideo bat jarriko dute. Horrez gain, munduko beste hainbat lekutara egindako bidaiak izango dituzte hizpide: Buenos Aires, Mexiko... Horietan gertatutako pasadizoak zein erronkak kontatu eta bidaiatzearen alderdi garrantzitsuenak zeintzuk diren azalduko dituzte: prespektiba, prestaketa, garapena eta itzulera. Bisitatu gura dugun lekua hautatzen dugunetik handik itzultzen garen arte jarraitu beharreko pausoak azalduko dituzte.

- **Non:** Algortako kultur etxea • **Noiz:** ekainak 8 • **Ordua:** 19:00

Auditoriuma. Ekainak 11, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

### BERANGO

- ▶ **La Dama de Alba.** Teatro ACADADE. Frontoia. Ekainak 4, domeka. 19:30.

## BESTEAK

### GETXO

- ▶ **XVIII. Nazioarteko Blues Jaialdia.** Travellin' Brothers, Carey & Lurie Bell, Ike

Turner & The Kings of Rhythm, Nora Jean Bruso. Algortako Portu Zaharra. Ekainaren 9tik 11ra arte.

### ▶ Balkoitik balkoira.

Bertso saioa: Andoni Egaña eta Xabier Paia. Algortako Etxetxu plaza (Portu Zaharra). Ekainak 16, barikua. 22:30.

### ▶ XIII. Getxotar Dantza Eguna.

Dantza akademietako 4 eta 20 urte bitarteko ikasleen koreografiak. Getxo Antzokia. Ekainak 17 eta 18. 12:30ean eta 19:00etan. Sarrera gonbidapenez.

### ▶ Gorputzi Eguneko Jaia.

Algortako Etxetxu plaza (Portu Zaharra). Ekainak 18, domeka. 12:00.

### LEIOA

### ▶ Leioako Udaleko

### VI. Jota Txapelketa.

Kultur Leioako Auditoriuma. Ekainak 10, zapatua. 18:00. Sarrera doan.

### ▶ Txitxiburruntxi eguna.

Berbalamiñe euskara elkartean antolatuta. S. Bartolome. Ekainak 11, domeka. Txistulariak, euskal dantzak, erromeria, puzgarriak, bertsolariak, etab.

### ▶ Su ta Gar taldearen kontzertua.

San Juan jaiak. Barandiaran institutua. Ekainak 16, barikua. 22:00. Sarrera doan.

### ▶ Orishas taldearen kontzertua.

San Juan jaiak. Aldapa auditorioa. Ekainak 17, zapatua. 23:00. Sarrera doan.

### BERANGO

### ▶ Oskorri eta Kukubiltxo.

Doktor Do Re Mi. Frontoia. Ekainak 3, zapatua. 19:00.

### ▶ Makilaje tailerra.

Gazteleku. Ekainak 9, barikua. 17:00 eta 19:00. Prezioa: 2/4 euro.

### ▶ Txakolin Eguna eta abesbatzak.

Sabino Arana kalea. Ekainak 11, domeka. Goizean zehar.

### ▶ Karaoke txapelketa eta barbakoa.

Berango gaua. Kultur Etxea. Ekainak 16, barikua.

### ▶ Idi probak.

Probalekua. Ekainaren 16tik 20ra arte. 21:00.

### ▶ Bike Trial Show.

Mountain bike erakustaldia. Eskola. Ekainak 17, zapatua. 20:00.

### BARRIKA

### ▶ XVII. Kanpoko Pintura Lehiaketa.

Ekainak 18, domeka. 9:00-17:30.

### ▶ San Juan jaiak.

Ekainaren 17tik 25era arte.

## ZINEMA

### BERANGO

### ▶ Las crónicas de Narnia.

Gazteleku. Ekainak 11, domeka. 17:00.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA

25 ANIVERSARIO  
URTEURRINA  
1981 - 2006



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



## Martiartu batailoia

Juan Mari Basterretxeak utzi dizkigu argazki hauek, etxeko albumean zeuzkan eta aitarengandik jaso zituen. Juan Basterretxea izan zen bere aita, Getxoko gudarietako bat. Martiartu batailoia abertzaleko lagunak azaltzen dira irudi hauetan, lasai antzera, borroka hasi baino lehen, 1937 aldera. Erandioko dorretxe ospetsuak eman zion izena gudari talde honi, eta hain zuzen ere, Erandion eduki zuten koartel nagusia. Eskualdeko makina bat lagunek osatu zuten Martiartu batailoia, ia gehienak eskarmentu militar bakoak, 36ko gerrako gudari gehien antzera.



Juan Basterretxea



## Getxoko behi siamesak?

Mikel Martinez

Non eta Getxon aurkitu ditu argazkilariak zirkura eroateko modukoak diren behi siames batzuk. Inguruan dauden baserri zaharkituak bezala, desagertzeaz dagoen espeziea dira Getxoko behiak, zer esanik ez hemen ikus dezakegun animalia! Askotan gure begiarentzat bitxiak diren egoerak lapurtzen ditu kamerak. Buru bakarra duten izaki bi ala gorputz bikoitza duen izakia da? Segundu batzuetan zehar begiratu ostean oraindik zalantzak eragiten duen irudi horietako bat da: ezkerrekoa ala eskumakoa? Gatxa da jakitea.



GETXO, 2006

[berbetan]

Tolosarra da eta Tolosan bizi da, baina Bilbon dauka lantokia eta hantxe hartu gaitu elkarrizketarako. EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren egoitzan, hain zuzen ere. Gaztetan, Garbiñe Biurrunek argi zeukan Zuzenbidea ikasi gura zuela, “baina norbaitek esan balit epailea izango nintzela, ez niokeen sinestuko”. Halako erabakiak geroago hartzen dira, antza. Orain, Biurrunek 19 urte daroaz epaile, horietatik 17 Lan Arloko magistratu. Epaile “ezaguna” da gainera, eta hori ez da batere arrunta, egia esan. Beraren lankide askok ihes egiten diote prentsari, izurritea bailitzan. Baina badira, aldiz, epaile “mediatikoak”, eta Garbiñe Biurrunek aitortu egin digu batek baino gehiagok horixe leporatzen diola berari, edo susmo hori daukala behintzat: “Halako gauzak ez dira aurpegira esaten”. Bost axola, dena den, Biurrunek ez dauka-eta ezkutatzekorik ezer. “Ez dut inolako oztoporik prentsarekin hitz egiteko, ez justiziaz ez beste edozertaz”. Guri ere harrera ona egin digu, bada, eta beldur barik egin digu berba gainera, ohi duenez.

# Garbiñe Biurrun

## Gauzak garbi esanez

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan ailegaten da epaile bat epaile izatera?

—Derrigorrezkoa da, noski, zuzenbide ikasketak izatea, eta gero bide desberdinak daude. Bide arrunta oposizioak dira; ikasi, ikasi eta ikasi. Karrera bukatu, gero oposizioak Madrilan, eta epaile bihurtu. Beste bide bat zuzenbide munduan lanean aritu izan direnentzat gordeta dago: abokatuak, unibertsitateko irakasleak, edo auzitegi-tako idazkariak. Eskuineko jendea horren aurka dago, epaile elkarte bat ere bai. Denak oposizio arruntetako jendea izatea nahi dute, horiek direlakoan epaile onak, eta ez dute nahi beste jende hori sartzea, beldur baitira -eta uste dut hein batean hala gertatu dela, zorionez- jende aurrerakoia eta ezkertiarra sartuko ote den.

—2003ko elkarrizketa batean esan zenuen epaileen independentzia arriskuan zegoela. Eta batek baino gehiagok esan-

go du: zer independentzia?! Badago halakorik ala?

—Bai. Nik hori aipatu nuenean oso egoera politiko zaila zegoen: 2003, orduko gobernua, egiten ziren izendapenak... Nahiko berezia. Nik badakit justizia, oro har, independentea dela eta independentziaren jarduten saiatzen dela. Noiz egiten du huts? Hain zuzen, botere politiko-

### “Epaileak kontrolatzeko gogoa beti egoten da botere politikoan”

arekiko, normalean exekutiboarekiko, arazoak daudenean. Orduan jartzen da arriskuan independentzia. Espainiako Auzitegi Nazionalan ikusi dugu, eta Auzitegi Gorenean ere bai, hein batean.

—Zelan eragiten zaio epaile bati, baina? —Independentzia ez da arriskuan jartzen epaileari berari presio eginez, ez. Nik ez dut ikusi eta ez dut uste halakorik egiten

denik. Aldiz, asko lor daiteke izendapenen bitartez. Hori alde batetik. Eta erabili den beste bidea oso nabarmena da, publikoki ikusi da argi eta garbi: edozein unetan magistratu bat boterearen gustukoa ez bazen, goiz batean txikitzen zuten; bi tertulia eta hiru egunkari nahikoa dira horretarako. Horrelakoak ikusi egin ditugu, eta 2003an pil-pilean zeuden. Epaile

baten ebazpena gustuko ez, eta egurra. Horrek zertarako balio du? Ez hainbeste epaile horri presio egiteko, -horrek emanda du bere epaia, eta hor konpon-, besteok ohartarazteko baino. Hori bai presioa, eta horrek bai kalte egin diezaiokeela independentziari.

—Zuk jasan duzu halakorik?

—Bai, bai.





—Lan Arloan egonda? Ez du emoten, ba, tertulianoen helburu kutunena denik hori...

—Auzi bat izan zen Mikel Arregi izeneko baten inguruan. Ez dakit zein den, ez dut inoiz pertsona hori ikusi, baina uste dut Herri Batasunako Mahai Nazionalako kidea-edo zela. Kontua da langabeziako prestazioa eskatu zuela, INEMek ukatu egin ziola, eta nik eman egin niola. Arazo juridikoa zen, politikarekin batere zerikurik ez zeukana, baina... Hori atera zuten, eta oso modu bitxian gainera: epaia eman eta bi hilabetera. Badakigu nola funtzionatzen duen honek.

—Zuk zelán jokatu zenuen?

—Ni, zorionez, oporretan nengoan. Baina tira, ez nuen ezer esan noski. Horrelakoetan hitzik ez, hori izaten da onena.

—Aterkia hartu eta txaparrada jasan?

—Aterkirik gabe. Hor bakarrik zaude. Kalte handia egiten du. Esaten diren gauzak, izugarritzko astakeriak... normalean oso injustua. ETArekin lotzen zaituzte, indarkeriarekin, gainera oso modu gogorrean esanda, eta min ematen du.

—Zu, gainera, bizkarzainagaz ibili zara orain gitxi arte, baina gero egingo dugu berba horretaz. 2003an esan zenuen hura, eta 2006an zer, arrisku bera dago?

—Uste dut baietz. Beharbada arindu egin da, presioa arlo guztietan arindu delako. Une hartan oso nabarmena zen arriskua, baina beti egoten da hor, botereak beti nahi du -Madrilen, Gasteizen, toki guztietan-, epaileengandik babestuta egon. "Hauek oso independenteak badira, auskalo zer egin dezaketen". Beldur hori badago, eta epaileak kontrolatzeko gogoia beti egoten da botere politikoa.

—Bestalde, zuen independentziak esan gura du zuetako bakoitzak bere ideologiaren arabera jokatzeko duela. Auzi berean oso epai desberdinak emon litezke, orduan...

—Gainditu ezin daitekeen muga bakarra dago: prebrikazioa, hau da, eabazpen bat ematea, injustua dela jakinda. Hori da

gure muga. Besterik da astakeriak egitea edo ez egitea. Kasu askotan, eta gehienetan beharbada, eztabaida liteke zeinek izan behar duen eabazpen juridikoa, baina beti tajuzko muga batzuen barruan.

—Justizia guztiontzat berdina ei da, baina epailearen ideologiaren menpe gagoz orduan. Zer tokatuko zaigun zain...

—Bai, baina hori ez da txarra. Horrelakorik ez balitz, oraindik ibiliko ginateteke jurisprudentzia zaharrekin. Jurisprudentzia

## “Komunikabideek, oro har, ez dute justiziarenganako interes handirik”

idea berriekin aldatzen da. Beste batzuetan ez da erraza legeak interpretatzea, hori egia da. Ez legea garbi ez dagoelako, baizik eta gero, kasu konkretura eramane behar duzunean, zailtasunak agertzen direlako. Orduan, noski, eragin handia dauka nor tokatzen zaizun epaile, nahiz eta Auzitegi Gorena irizpideak batzen saiatzen den. Hori alde batetik.

Bestetik, justizia ez dela guztiontzat berdina? Oso zaila da hala izatea, gizartea, eta mundua, eta bizitza, ez direlako berdinak denontzat. Arlo Zibilean izugarritzko garrantzia dauka diruak, adibidez.

—Hori injustua da ordea...

—Gizarteko injustizia hona ere etortzen da. Adibidez: osasuna justua da? Osasun

## “Justizia ez dela guztiontzat berdina? Oso zaila da hala izatea”

erakundeak saiatzen dira guztienganaino iristen eta aukera berdinak ematen, baina badakigu ez dela horrela.

—Komunikabideok laugarren boterea ei gara. Tertuliak albo batean utzita, epaileak zelán konpontzen zarete prentsagaz?

—Iruditzen zait komunikabideek, oro har, ez daukatela justiziarenganako interes handirik, gai jakin batzuk suertatzen direnean izan ezik, eta hala oso zaila da harre-

man normalizatuak edukitzea. Askotan, komunikabideek egiten dutena sensazionalismoa besterik ez da, nahiz eta komunikabide “arruntak” eta “lasaiak” izan. Eta sensazionalismoari kultura juridiko eskasa gehituz sortzen dena ez da ona. Informazioa behar da, baina helburu batekin. Eta uste dut komunikabideek ez daukatela helburu hori orain. Justizia gaiak gertakari atalean egoten dira (bortxaketak, tratatu txarrak...), edo politikan. Baina jus-

tiziari ez zaio jarraipen lasaia egiten.

—Zenbateraino aldatu dizu bizitza ETArekin su-etenak?

—Askoz lasaiago bizi naiz, hori atzeman dut, eta ez badut gehiago atzeman izan da azkenengo denboraldian ere gehienok lasaiago geundelako. Konparatzen badut orain hiruzpalau urteko egoerarekin, aldaketa askoz nabarmenagoa da. Hala ere, asko nabaritu dut. Mugitzeko aukera lehen ere bageneukan, baina bizkarzainekin hasi ginenean... Seguru baina deseroso. Eta eroso genbiltzanean, ez zen inolaz ere segurua. Orain, bizimodu arrunta erabat lortu ez badugu ere, lortzeko bidean gaude.

—Zure bizipen horrek asko eragiten dio

ireki den aro politiko berriaz daukazun ikuspegiari? Alegia, pentsatu egiten duzu: “mesedez, gertatuak gertatu nik ez dezadala barrero bizkarzainik eduki”?

—Nire osasuna eta nire ongizatea asko estimatzen ditut, noski. Baina hala ere, ez dut horrelakorik eskatzen. Badakit prozesuak denbora beharko duela, baina une bat helduko da non indarkeria erabat baztertuta egongo den, eta ez ditu gure bizi-

tzak baldintzatuko. Hala ez balitz, nik ez nituzke neure osasuna, neure ongizatea... gizartearen interesaren aurretik jarriko. Uste dut bake prozesuak ahalik eta justuena izan behar duela, eta ondo itxi behar dutela, ezer zintzilik utzi gabe. Hau ez da beste trantsizio bat izan behar, horren gaizki eginda.

—Zer iritzi duzu 18/98 sumarioaz?

—Sumario hau garai politiko baten semea da. Nire iritzi, sumario hori ez zen inoiz ireki behar izan. Argi ikusten da Audientzia Nazionalak zer egin duen: lehenengo, terrorismo kontzeptua asko zabaldu; gero, sareak asko zabaldu pertsonak harrapatzeko, nahiz eta oso lotura ahula eta urrunekoa eduki terrorismo kontzeptu zabal horrekin; eta azkenik, gainera, hori dena frogatzeko erabiltzen

diren frogak oso bitxiak dira. Azken batean, Guardia Zibilaren txostenak dira, eta ez dago beste frogarik.

—Eta zer iritzi duzu Audientzia Nazional bat existitzeaz?

—Hori oso galdera erraza da niretzat, ez dudalako nire iritzia bakarrik eman behar, elkarte batena baizik. Ni *Jueces para la democracia* elkarteko kidea naiz eta ez dakit noiz arte, urtero-urtero egiten ditugun biltzarretan, Audientzia Nazionala desagertzeko eskatu izan dugu.

—Eta orain ez?

—Ez.

—...?

—Terrorismoak kalte handia egin du. Sufrimendu handia eragin du, baina egin duen kalterik handiena, nire ustez, gizarte osoa, edo behintzat gehiengo, alda-

tzea izan da.

—Eskuindarrago bihurtuz?

—Bai, hala esan daiteke.

—Andrazkoen aldeko lege barriak...

—Uste dut helburua oso ona dela, eta derrigorrezkoa gainera, egoera jasanezina delako. Baina hainbat alderdi oso eztabaidagarriak direla uste dut: adibidez, ez zait gehiegi gustatzen zigor larriagoa jartzea gizonezkoiei emakumezkoiei baino, delitu beragatik. Ez zait iruditzen horren bitartez gizartearen heziketa lortzen denik. Bestalde, legeak badauka beste zati bat: prebentzioa, heziketa eta abar, eta hori oraindik abiarazi gabe dago neurri handi batean. Legea integrala da, baina azkenean, indarrean dauden neurriak zigor-neurriak besterik ez dira. Horiek ere beharrezkoak dira, baina... m

# Leioako I. Txitxiburruntzi Eguna




## Ekainak 11 San Bartolome

- Goizean **dultzaineroak** herrian zehar San Bartolome auzoraino.
- Egun osoan zehar **barra eta terraza**.
- Goizeko 12:00etan **txitxiburruntzia** jende guztiarentzat **dobainik**.
- Goizean zehar **umeentzako gaztelu puzgarria**.
  - Goizeko 12:30etatik 13:30era **dantzak**.
- Eguerdiko 13:30ean **“Larrain dantza”** dantzatuko dugu guztiok.
  - Eguerdiko 14:30ean **herri bazkaria**.
- Arratsaldeko 16:30-19:30 **“Erdizka laueta” taldearekin erromeria**.

*Berbalamiñe Euskara Elkartearen eskutik*





LA POBLACION EDO EL LEON DORMIDO MENDIA (ARABA)



LAREKO URTEGIA, ATAUIN (GIPUZKOA)



URRUNAGAKO URTEGIA, ATZEAN GORBEIA (ARABA)

# Euskal Herriak

Euskal Herriko herrialde bakoitzeko argazki liburu bana osatu berri du aurkezpenik behar ez duen Santi Yaniz kazetari eta argazkilaria handiak, Bilboko Sua Edizioak eskatuta. Liburuotan (7 barik, guztira bost dira, hegoaldeko lurralde bakoitzeko bana eta iparralde osorako bakarra) herrialde bakoitzaren ikuspegi orokorra erakusten du Yanizek 100 paisaia ederretan. Garai digital hauetan argazki guztiak pelikulaz eginak direla azpimarratu digu egileak. Deigarria ere bada irudien kalitatea eta edizio txukuna. Hemen lan horren lagin txiki-txikia daukazue.

Argazkiak: **Santi Yaniz**





ENTZIA MENDILEPROA (ARABA)



URZAINKI, ERRONKARI (NAFARROA)



SUBIZAKO GATZ MENDIAK, IRUÑERRIA (NAFARROA)



MAHASTIAK BIASTERIN (ARABA)



BILBOKO PORTUA



ONDARRETA HONDARTZA, DONOSTIA



ZURRIOLA HONDARTZA, DONOSTIA



GUJULIKO UR JAUZA (ARABA)



ALDUDES BAILARA, BAIGORRI (NAFARROA BEHEREA)



KAKOETA, SANTA GRAZI (ZUBEROA)

# berria gure etxean euskara

## Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, opariak eta deskontuak.
4. Promozioetan abantailak



## Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz\* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

\* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

## zineeskola

Oskar Fernandez

## Egile-zinema

Film bat egiteko jende ugari behar da: mota guztietako teknikariak, gidolaria, ekoizleak, zuzendari artistikoa, argazki zuzendaria, zinema zuzendaria, aktoreak eta abar luze bat. Hau beste adierazpen artistikoetan ez da gertatzen, eta gehienetan pertsona batek eleberria idazten du, musika sortzen du, koadroa margotzen du edo eskultura zizelkatzen du. Baina zinemagintzak bere ezaugarri bereziak ditu eta, printzipioz, lan kolektibo bezala har genezake, nahiz eta ospe handia eskuratuko duena edo gehien entzuten den izena zinema zuzendariarena izan. Hala eta guztiz ere, bereizketa egin behar dugu. Ez da gauza bera ekoizle etxe batek proposatutako filma zuzentzea edo norberak nahi duen historia eta nahi duen eran fotogramen bidez kontatzea. Bigarren kasu honetan zuzendariari egilea edo autorea deitzen zaio eta egindako lanari egile zinea (cine de autor). Baina ikus dezagun nola eta noiz sortu zen kontzeptu edo pertzepzio hau. Zinemaren hasieran, hemeretzigarren mendearen bukaeran eta hogeigarrenaren hasieran, zine egileak egon arren ekoizle etxeak baino ez ziren agertzen pelikuletako kredituetan eta auzi hau planteatu ere ez zuten egiten. Film bat produktu bat zen eta garai hartako ekoizle etxeek haien pelikulak "sinatzeko" zituzten logotipoak edo anagramak erabiltzen zituzten. Georges Méliès-ek (Star film) izarra zuen, Pathék oilarra zuen eta Gaumontek bitxilore bat. Hogeigarren hamarkadan, berriz, Louis Delluc frantziar zinema zuzendari, teoriko eta zine kritikoak autore edo egile hitza erabiltzen hasi zen. 4

## Oihala behera urria arte

## Perseo zine forum, haur zinea eta zine komertzialaren eskaintzari Leioan ere agur!

**Kultur Leioak** ere jaitsi du zine denboraldiaren oihala urria arte. Perseo zine forumaren (martitzena, 20:00, 2 euro), haur zinearen (domeka, 12:00 eta 17:00, 3 euro) eta zine komertzialaren (zapatua 19:00 eta 22:00, domeka 20:00, 4 euro; eta astelehena 20:00, 3 euro) gainekoen berri eman du Asier Elorduik.

Hala, ikasturte honetan Perseo elkarteak antolatzen duen zine forum zikloetara 1.000 lagun baino gehiago hurbildu dira. Ikusle gehien erakarri dituen zikloa, Elorduren esanetan, Woody Allen zuzendariari eskainitakoa izan da. Era berean, filmaren osteko eztabaidetara batez beste 40 pertsona inguru gelditu dira.

Osterantzean, haur eta gazte zine eskaintzak 2.000 ikus-entzule inguru izan ditu. Elorduik azaldu duenez, gatxa bada ere, hilean birritan euskarazko filmak ematen

**«Urritik maiatzera zine forumak 1.000 ikusle, haur zineak 2.000 eta komertzialak 1.500»**

ahalegintzen dira, eta txikien artean euskarazko filmak ikusle fidelak dituela jakinarazi du: "Batez beste 80-90 gaztetxo hurbiltzen dira emanaldi bakoitzera". Bestalde, lan ikusienak gazteleaz *Garfield* eta *La vuelta al Mundo en 80 dias* izan dira; eta euskaraz



Aupa Etxebeste filmaren fotograma

*Shin Chan, Glup, Kiriku eta basapiztiak...*

Zine komertzialaren eskaintzaren gainean zera dio Elorduik: "Artea eta Getxoko Kirol Portuko zinema aretoak bain hurbil egonda, film ez hain komertzialak ematen ahalegintzen gara". Hala, 1.500 ikusle baino gehiago batu dira emanaldietara. Film arrakastatsuen artean ondorengoak daude: *Los chicos del coro*, *El jardinero fiel*, *Obaba* eta *Aupa Etxebeste!*

Amaitzeko, Elorduik gogoratu moduan film laburrei, lehiaketako filmei, Zinehegoak-eko lanei, animaziozko pelikulei... ere lekua egiten die Kultur Leioako programazioak. Bestalde, datorren denboraldian ordutegi aldatuak bat egin daitezkeela aurreratu du. m

Filmak > *El código Da Vinci*

Maiatzaren 17an Canneseko Nazioarteko Zinemaldian Ron Howardek zuzendutako film eztabaidagarria –pantailaratu aurretik ere ospetsu bihurtu dena– estrenatu zen: Da Vinci Kodea. Pelikula hau Dan Brown idazleak idatzitako eleberri arrakastatsuan oinarritzen da. Proiektu honi Vatikanok eta Opus Deik –egindako kritikagatik– doako propaganda izugarria egin diote. Baina bai bata, bai bestea lasai egon daitezke istorio hau ez baita Umberto Eco linguista eta idazlea ezagunak egindako *Arrosaren izena* bezalakoa. Film honek lortu zuen sakontasuna eta interesa ez du lortu Howard zuzendariak –Hollywoodek ezartzen duen ereduari jarraituz– egin duenarekin, eleberriaren agertzen diren ezaugarriak eta edukia kontuan hartu arren. Baina, Da Vinci Kodeak hausnarketara eraman gaitzake eta hori bada oso interesgarria.

## Ekaineko malenkonia

## Portu Zaharreko iluntzeak Getxoko Blues

jaialdiaren hitzordu izango dira, urtero legez



Nora Jean Bruso abeslariak emango dio amaiera aurtengo XVIII. Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdiari.

**Ekainaren 9, 10 eta 11** gorde ditu Getxoko Nazioarteko Blues jaialdiak bere adin nagusitasunaren urtemuga ospatzeko. XVIII. Bluesaldirako gonbidatu nagusiak hurrengoak dira: Travellin' Brothers eta Carey & Lurie Bell lehenengo egunean, Ike Turner & The Kings of Rhythm bigarren gauean, eta Nora Jean Bruso azken iluntzean. Gonbidapenak dohakoak dira eta lehenengo eta bigarren egunetako kontzertuak 21:30ean hasiko dira; azkenengoa, oster, 20:00etan.

Dohakabetasun melankolikoaren iturri desberdinetatik edan duten musikari adierazgarriak porturatuko dira aurten ere Algortan. Travellin' Brotherek emango dio jaialdiari euskal blue-

saren kutsua, eta ostean, Carey eta Lurie Bell aita-semeek jardungo dute, nagusiena aho-soinuaren maisua eta gazteena Muddy Watersen gitarra jotzaile ikasle fina eta arrakastatsua. Ike Turner buru The Kings of Rhythm taldeak joko du jaialdiaren erdigunean, besteak beste, estilo oldarreko gitarra jotzailea Robert Nightawk edota Sony Boy artista-kaz ibili da, *Rocket 88* diskoa bergrabatu zuen 69 urteagaz, eta Tina Turnerren senar ohiaren kantu batzuek *Kill Bill* filmako soinu-banda osatu dute. Bluesaldiari amaiera ezin hobea emateko Nora Jean Bruso aukeratu dute, blues eta gospel musikari familia batean jaioa eta gaur egungo bluesaren 10 ahots onenen zerrendan izendatua 2003an. m

## diskoak

**Dans Ma Bulle**  
Diam's  
Hostile/Capitole



Lan hau aurrekoa baino intimagoa da; izan ere, lehenbizikoa manifestu politikoa eta poetikoa izan zen. Hala eta guztiz ere, oraingoan ez du ahaztu Frantziako gazteen arazoak inor baino hobeto deskribatzen. Kantariak bere errealitatearen eta jatorriaren inguruan abesten du eta, kantu batzuk garbiegiak diren arren, bere belaunaldiaren ikurra izaten jarraitzen du.

**Surfin Tenochtitlan**  
Los Coronas  
Gaztelupeko Hotsak



Mexikon bira arrakastatsua egin eta gero, lan berria aurkeztu dute Estatu osoan Gaztelupeko Hotsaken eskutik. Taldeak 15 urtean egindako abestirik onenak biltzen ditu disko honek, argitaratu gabeko Tony Joe Whiteren Polk Salad Annie tartean. Surf estiloko musika egiten dute eta bere kanta, besteak beste, Airbag eta Abre los Ojos filmetan entzun daitezke.

**Zerutik eskegita**  
Atmoog  
Gaztelupeko Hotsak



Trip-hop, elektronika eta rockaren arteko nahasketagaz egingo dugu topo Gasteizko taldearen lan berrian. Taldea jaiotzen zortzi urte igaro badira ere, orain atera dute euren lehenbiziko diskoa; izan ere, hiru urte izan dira proiektu honetan buru belarri. Eragin ezberdinak lanean jasota gelditu dira eta musika euskaldunaren munduan talde berri-zaitzaile dela esan daitezke.

## diskoa &gt;

## Musika aske mundurat



Musikherria disketearen laguntzagaz, Mundurat Sarea eta berori osatzen duten taldeen musika ezagutarazteko asmoz kalean dago

dagoeneko *Musika aske mundurat* bilduma diskoa. Mundurat Sareko kide diren 22 talderen kantuak osatzen dute diskoa, eta bertso-hop estiloko aurkezpena eta software librearen aldeko ereserkiaren bertsioa ere aurki daitezke bertan. Besteak beste, hurrengo taldeen abestiak daude: Dubet, Khous, Ezein, SKT Sekuentzia, Oliba Gorriak, Pariak Bai, Erantzun, Korumba, Stockholm S, Zülo, Nun, Akatu... Diskoa Bilboko Gatazka Gunea dendan (Likiniano) eta Amets taberna (Bilbao La Vieja) euskura daitezke (3 euro), edota sarearen bidez ere bai.

[www.mundurat.net/bilduma](http://www.mundurat.net/bilduma)

## jaialdia &gt;

## EH zuzenean

Aurten 11 urte beteko ditu Euskal Herria Zuzenean elkarteak antolatzen duen izen bereko jaialdiak. Ekainaren 30a eta uztailaren 2a bitartean egingo da Idauze-Mendi, Ozaze-Zuhara eta Mendikota (Zuberoa) artean dagoen zelaian. Musika gidari bada ere beste alde batzuk ere bultzatzen dira: euskara, internazionalismoa, ingurumena... helburu nagusia euskal kultura ezagutaraztea da, gazteen eta musikaren bidez. Sarrerek 15/18 euro (egun bat) eta 35 euro (bonoa) balio dute. Antolaketa-laguntzaile bila ere badabilta.

[www.festival-ehz.com](http://www.festival-ehz.com)

etorri  
eta  
ikusii!!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

### Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza

**ekainak 12**

Areetako anbulatorioa

**ekainak 13**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389



**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Bingen Ametzaga

**Algortako** idazlearen **Itsaso aurrean** lana argitaratu du Susa argitaletxeak

**Bingen Ametzaga** itzultzailearen poesia liburua argitaratu zuen Susa argitaletxeak maiatzean. Idazleak 1919 eta 1968 urteen bitartean egindako poema sakabana-tuak eta poesia itzulpenak biltzen ditu liburuak.

Ametzaga 1901. urtean jaio zen Algortan eta gerra garaian Eusko Jaurlaritzako "Lan-Irakaskuntzako" buru izan zen. Orduan, erbestera ihes egin behar izan zuen, lehenengo eskoletako umeakaz eta, ondoren, emazteagaz. Hartara, Euskal Herritik kanpo eman behar izan zuen bere

**«Idazleak 1919 eta 1968 urteen artean osatutako poemak bildu dituzte»**

bizitza ia osoa eta, besteak beste, Ingalaterran, Parisen, Buenos Airesen, Montevideon eta Caracasen (bertan zendu zen 1968an) egon zen.

*Euzko Deyan* eta *Euzkadi* argitalpenetan plazaratu zituen politikariak bere lehenengo olerkiak eta, erbestean, *Egan* eta *Euzko Gogoia* aldizkarietan kolaboratu zuen.

Euskaldun berria izan arren, laster jabetu zen Ametzaga euskarak dituen aldaera zein irudi guztiez eta euskal literatura itzultzaile aitzindarietako bat bilaka-




Bingen Ametzaga

tu zen. Shakespearen *Hamlet* euskaratu eta Buenos Airesen argitaratu zuen 1952an. Orduetik hil zen arte makina bat klasiko euskaratu zituen: Wilderen *Reading Baitegiko Balada*, Goetheren *Lur Miña*, Plinioren *Plini gaztearen idazkiak*, Zizeronen *Adiskidetasuna*, J. R. Jimenezen *Platero eta biok*, Esquiloren *Prometeu burdinetan*, etab.

Argitaratu berri duten liburuan, berriz, berak sortutako honako poemak izango ditugu irakurgai: *Lorarik onena*, *Itsaso aurrean*, *Biziaren alegia*, *Herrimina*, *Amerikarako bidean*, *Lurmina* eta *Askatasun*. m

liburuak



**Anaren bakardadea**  
Jordi Sierra i Fabra  
Erein

15 urteko neska baten gogoz kontrako haurdunaldiaren berri ematen digu eleberri honek. Gazteak ez du inoren laguntzarik jasoko eta gizartearen hipokresia zein faltsukeria agerian geratuko da. Egoera horiek salatzen dituen liburu konprometitu da honako hau.



**Etxea**  
Josu Penades  
Alberdania

Pertsoniak dira kontakizun honen ardatza; izan ere, egoera beraren aurrean pertsonaia bakoitzak zer ikusten, pentsatzen edo sentitzen duen erakusten digu egileak, hau da, gizakiak duen barne-erreferentziaren berri ematen digu hiru pertsonaiaren bitartez.

[kirola]

## Saskiratzeko prest?

**Getxo Saskibaloit taldearen III. campusak eskaintza aberatsagoa eta berritua dakar**



Getxoko campusa Andra Mariko ikastetxean eta kiroldegian egingo da

**Getxo** Saskibaloit taldeak aurten Bilbao Basket fundazioagaz eta Bizkaiko Saskibaloit federazioagaz bat egin du, eta hirurek elkarlanean Bilbao Basket campusak antolatu dituzte. Horrenbestez, uda honetan saskibaloit campusak Bizkaiko hainbat herritan egingo dira, Barakaldon, Bilbon, Mungian, Portugaleten, Zornotzan, eta zelan ez, Getxon ere bai.

Getxoko campusa Andra Mariko ikastetxean eta kiroldegian lekutu du udalerriko saskibaloit taldeak, eta arduradunek azaldu dutenez III. edizio honetako eskaintza "aberatsagoa da eta berrikuntzak dauzka, besteak beste, txanda gehiago egingo dira eta egunen kopurua ere luzatu dugu". Hala, lau txanda antolatu dituzte Getxon ekaina amaieran hasi eta uztailearen bukaera arte, eta aste bateko iraupena izango du txanda bakoitzak, astelehenerik zapatuta (txanda bakoitzaren datak alboko laukian). Izena emateko epea campusak hasi aurreko egunera arte egongo da zabalik eta arduradunek jakinarazi dutenez, "leku arazorik ez dugula izango uste dugu, orain eskaintzen ditugun lekuak baino lagun gehiagok ematen badu-

te izena ondoan dagoen Aixerrota institutuko eremua ere erabilgarri dagoelako".

Bestalde, antolatzaileek iragarri dutenez, parte hartzaileen artean euskara hobetsiko dute. Eta aurtengo edizioarako ekimen bereziak prestatu gura dituzte, hala nola: Lagunaro Bilbao Basket taldeko entrenatzaile Txus Vidorreta izango da campusen kirol zuzendaria eta ondorioz bere eskarmentua izango dute baliagarri partehartzaileek; ACBko jokalarien bisita azken eguneko ospakizunean... Amaitzeko, campusaren prezioa 135 eurokoa da, 20 euro gehiago autobus zerbitzua erabiliz gero. m

### Datu batzuk

- **Non:** Andra Mariko ikastetxea eta kiroldegia.
- **Noiz:** Ekainak 26 - uztailak 1; uztailak 3-8; uztailak 10-15 eta uztailak 17-22.
- **Norentzat:** 6-16 urte bitartekoentzat, eta talde entrenatzaileentzat.
- **Zenbat:** 135 euro (20 euro autobus zerbitzua)
- **Informazio gehiago:** www.getxosaski.com  
www.bilbaobasket.biz edo 610326470.

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kirol moda**



**350** M<sup>2</sup>

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC

**Lacofris S.L.**

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

**HIRURAK** T: 430

Sarrikobaso 15

**Nerea Landa** > dermatologoa

## “Estetika arloan liderrak izaten ahalegintzen gara Dermitek-en”



Tratamenduak garestiak ez direla dio Nerea Landa doktoreak. Informazio gehiago: [www.dermitek.com](http://www.dermitek.com)

Algortan eta Bilbon dauden Dermitek kliniketako ikerketa arloko arduraduna da Nerea Landa doktorea eta eskarmentu handiko dermatologoa dela esan dezakegu; izan ere, AEBetako Mayo klinikan eta Gurutzetako ospitalean burutu zuen bere espezialitatea eta, Dermatologiaren Akademiako kidea izateaz gain, bere lekua dauka International Society of Cosmetic Laser Surgery elkartean.

—Zergatik erabaki zenuen estetika arloan lan egitea?

—Urte asko egin ditut Basurtoko eta Gurutzetako ospitaleetan dermatologia sailean eta, horrez gain, nire kontsulta neukan Algortan. Ospitalean, gaixotasun patologikokaz egiten nuen behar, baina Algortan arrazoi estetikoengatik zetozen bezeroak neuzkan eta arlo horretan sakontzea erabaki nuen. Azkenean, aukeratu behar izan nuen ospitalean jarraitzea ala estetikan murgiltzea. Beraz, 1998an Dermitek inauguratu ge-

nuen Algortan. Denboragaz beste klinika bi ireki ditugu Bilbon.

—Mota honetako klinika asko dago Euskal Herrian?

—Gero eta gehiago, baina gu liderrak izaten ahalegintzen gara. Gure baliabideak etengabe eguneratzen gabilta eta, horretarako, AEBetara bidaiatu ugari egiten ditugu, han daude-eta teknologia berriak. Gainera, gure enpresan lan egiten dugun askok han ikasi dugu eta bileretara joaten gara bertara.

—Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen trata-

menduak?

—Algortan laser bidezko depilazioa egiten dugu soilik eta gainerakoa Bilbon (depilazioa bane): azaleko orbanak eta zimurrak kentzea, botox, liposukzioa, ebakuntza txikiak... Horretarako, dermatologoak, zirujauak eta estetikan adituak diren medikuak ditugu.

—Garestia izango da...

—Hori kanpotik ematen duena da, baina hona etortzean jendea harritu egiten da, ez delako hainbesterako izaten. Besapea depilatzea, adibidez, 600 bat euro kostatzen da, saio limiterik gabe; eskuetako orbanak kentzea 180 euro etab. Ez da garestia eta bizi guztirako da.

### «Kontuz ibili behar da profesionalak ez diren zentroakaz»

—Laser bidezko depilazioan arriskurik bal dago?

—Ondo eginda badago, trebakuntzaz eta tresneria egokiaz, oso oso txikia da. Eguzkia hartu ondoren azala belztuta duzula eginez gero, gerta daiteke orbanen bat ateratzea, baina oso arraroa da; horregatik azala zuri egon arte itxaroten dugu. Hasieratik jarraipena egiten diogu eta adinaren zein ile kopuruaren arabera tratamendu bat edo beste jarri. Kontuz ibili behar da profesionalak ez diren eta medikuak ez dituzten zentroakaz, egon badaude-eta!

—Jendea agian beldur da...

—Horretarako lehenbiziko kontsulta doan da eta, bezeroak gura badu, froga bat egiten diogu beldur hori kentzeko. Heldu eta berehala, mediku batek ikusiko du arazorik dagoen edo ez antzemateko. Zonalde batzuk besteak baino gaxagoak dira depilatzeko, beraz, eskarmentu handia behar da tratamendua aurrera eramateko. m

### Esakere > “Buzkentak orde beti”



Irudia: Gorka Vazquez

Fisikak irekaten dosku akziñok erreakiño ekarten daule, eta bizidunen arteko hartuemonatan bere holan pasaten da sarri: nonori zeozer eññ baiño lehelau hoba ixeten da behin edo birriten pentsate. Eta askotan ohiture edo tradiziñogettik txarto trataten doguz animala batzuk, asko pentsa barik gizatasuneko portakera ete dan hori. Beti ezosku kuma baten amak burun yoko, baia luzeran, animaliri eta natureri egiten dotsun kaltek edo kentzen dotsun "buzkentak" orde ekarko dosku.

Esakera hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urdulizeko berbak eta bizimodu" liburun topako dozue.

### Gureberbakere78

## BERBA JATOR BATZUK (XIX)

Berbakere 74en eta aurreko beste batzuten aspaldin erderatik harturiko berba batzuk, hau da, maillegu zahar batzuk, ikusi genduzen, gure euskeran aspalditik eta modu jatorran erabilten direzenak. Berbakere honetan aurrera egingo dogu horrek mailleguk ikusten

Testua: **Xabi Bilbao**

• **kargutu:** (ad.) Zeozen kargu edo ardure hartu, edo konturetu. Bigarren esangure hau da gauza berezi.

—*Irrati éntzuten egon naz bai, baia enaz kargutu zer esan daun egualdin gánera.*

—*Esátzesu gure dózune, baia behingon kargútuko da kóntuez, bizkorra da ta!*

• **karreju:** (iz.) etxeko (baserriko) gelak lotzen dauzen pasabide, "pasillo" erderaz.

—*Karrejure sartu ta áton barrínta nendun kean usiñe.*

• **komédik:** (iz.) komediak; sarri erabilten da zeozer kostata edo larri ibilte egin dala esateko.

—*Guk eztakiu bápere frantsesik eta komérik auki genduzen Parisen non lo iñ tópatoko.*

—*Telebisño ikusten belu arten lótzten gara ta gero goxen átxateko... buf, komédik!*

• **konposture:** (iz.) apurtute daun edo ondo ez dabilen tresna bat ondo iminte edo konpontze.

—*Kóntuz éroizuz hórrek plátérak, ze apurtu ezkéron eztauke konposturerik!*  
—*Automóbillek sarri dauke matrákaran bat, ta konposturek gero karu úrteten dau beti.*

• **kontesta:** (ad.) erabilten da nonok arrazoi barik edo errespetu barik erantzuten daun, kasu beterako úmek jente nagósiri.

—*Ezin isillik egon hónek úmek: amak onerako esan eta áurek óndiño kontesta!*

• **kóntu:** (iz.) gauza askotarako erabilten da kontu berbe, eta sarri 'gaia', 'arazoa' esateko.

—*Agintérik beti daukez esplikaziñok eta berba onak, baia kóntu da urtero kariáu dala kontribuziño.*

—*Europak bádakar gauza onik? Kóntu txu, oiñ ardaun bere kasik lújoko gauze da!*

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalbokoa

## Krepak

perretxikoz beteak

**H**asteko krepak prestatu behar dira (gogorik ez badaukazue, egindakoak ere saltzen dituzte). Irina, esnea, arrautza, gatza, eta eguzkilore olioaren ontzi batean sartu eta irabiatu loditu arte. Gero zartaginean frijitu krepak egiteko. Bestetik perretxikoak (eskura dauzkagunak, esaterako orain zizahoriak, edota txanpinoiak) buelta eta buelta berakatzarekin apur bat egin. Perretxikoekin krepak bete eta gaitetik onddoen pilpila botako diegu. Pil-pil hau mahonesa baten moduan egiten da. Lehenengo tenperatura bajaran onddoak pusketan zatituak apur bat egin. Gero ontzi batean ur apur batekin ipini eta hau irabiatzen dugun bitartean olio apurka-apurka gehitu saltsa loditsua lortu arte. <sup>m</sup>

osagaiak (10 krepak egiteko)

**Krepak egiteko:** litro 1 esne • 150 gramo irin • 1 arrautz • gatza • golianakada bat eguzkilore olio / **Onddo pil-pila egiteko:** 100 gramo onddo • ur apur bat • olio / **Krepak betetzeko:** 300 gramo perretxiko



itsaso arana / jolastokikoa

## Garnatxa

mahatsa

**M**ahats beltza da eta bere aleak obalatuak, gozoak eta moreak izaten dira. Bere gozotasuna dela-eta oso erraz igar daitezkeen mahatsa da garnatxa eta, ardao gozoak kenduta, oso zaila da garnatxagaz %100ean egindako ardaoak topatzea; izan ere, gehien gehienetan beste mahats batzuekin nahasten da. Ardao gozoak, sarritan gozoegiak ematen ditu.

Mediterraneo inguruan landatzen da, batez ere, Zerdenian, Frantzia eta Katalunian. Eta esan behar da mundu osoan zehar Mediterraneoan jatorria duten mahatsen artean zabalduena eta landatuena dela garnatxa. Mahats honekin egindako ardaoak jatorrizko izendapenak Kataluniakoak dira. Oso ezagunak dira Garnatxa d'Emporda ardao gozoak eta Prioratokoak. Amaitzeko bitxekeria bat; mahatsaren izenaren jatorria Vernazza da, Italiako Liguria inguruko herri baten izena, hain zuzen ere. <sup>m</sup>



## Gorlizko Arrien jatetxea

Familia giroan jateko aukera ezin hobea



Ela eta Patrik Poloniako jakiak eskainiko dituzte Arrien kanpenean

**Hasiera** batean, ez zen Poloniatik aspaldi etorritako Nitsche sendiaren ideia ostalaritza munduan lan egitea, baina jendeagaz egotea eta berba egitea gustuko dutenez, Gorlizen dagoen Arrien kanpinen jatetxea eramate erabaki dute. "Jende artean egotea gustatzen zaigu eta kanpinera datorren jendea berezia da, espezie ezberdina", azaltzen du ilusioz beterik Patrik Nitsche semeak. Ela, ama, iritzi berekoa da eta familia giroko jatetxea izango dela nabarmendu gura du: "Udan, gainera, Mateo seme txikia etorriko da laguntzera, Polonian ikasketak amaitzen dituenean".

Ekainean irekiko dute lokala eta, eguneko menuaz zein asteburukoaz gain, pla-

ter konbinatuak, hanburgesak, pizzak eta mota guztietako tapak (tigreak, txorizoa sagardo erara...) eskainiko dituzte.

Era berean, Europako iparraldean ohikoak diren jakiak prestatuko dituzte. "Ez bakarrik atzerritarrentzat, gure gastronomia euskaldunen artean ere ezagutzera eman gura dugu", dio Patrikek. Besteak beste, *chucrut* (modu askotara prestatzen den harrotutako aza), *zawijane* (okela biribilki beteak) eta *nalesniki* (krep gazi eta gozoak) jateko aukera izango dugu. Taberna egun guztian zehar egongo da irekita, hau da, 9:00etatik 00:00etara arte. <sup>m</sup>

**ARRIEN Uresarantze auzoa - Gorliz**

**gOZOLABEA**

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

nire, hiru, haren, gure, zure, zuen, haien...

**denon jaia!**

ack



94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
**ezagutzen al duzu?**

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi** ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**Basurto**

Algorta S.L. altzariak

**LEHEN, ORAIN ETA BETI**

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Apiriluzeko z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T: 94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria  
etxean jaso  
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]


<p><b>URA</b> t</p>  <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Giro epela, fraka laburrak, izozkia... Denok hondartzarako prest eta zuk ez duzula harea gogoko! Zer egin behar duzu orduan? Etxean gerizpetan geratu? Mesedez! Har ezazu eguzkia behintzat, osterantzean txipiroia emango duzue-eta...</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p>  <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> Gauzei buelta larregi ematen diezu eta garrantzirik ez duten arazoek izugarriko samina eragiten dizute. Bizitza lasaia hartu behar duzu eta zerbait egin baino lehen egoeraren inguruko hausnarketa egin, baina ikaratu barik.</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p>  <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Etxetik joan gura duzu baina sosik ez? Egungo izurrite erraldoia: diru falta. <i>Money-money...</i> abesten zuten Cabaret film entzutetsu hartan eta arrazoirik ez zitzaizela falta, "money"-a da-eta bizitza honetan aurrera egiteko beharrezkoa.</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p>  <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Buruagorria zara, kaskagorria benetan. Buruan zerbait sartzen zaituzanean, hura lortu artean, inork ezingo zaitu geldiarazi. Une batzuetarako ezaugarri oso ona da, baina kasu batzuetan gauzak dauden bezala uztea ez legoke txarto.</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p>  <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Lagun baten traizioari ez dakizula zelan aurre egin? Hasaraturaz ez behintzat. Benetakoak ez diren lagunakaz energiari galtzea ez du merezi, beraz, kasurik ez eta ikusiko duzu zelan damutuko den. Berandu ordea...</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p>  <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Amodiozko filmetako protagonistak bezala sentitzen zara; ezberdintasun bakarra, ez duzula zineman bezala musika erromantikorik entzuten. Loreek gehiago usaintzen dute, zerua urdinagoa da, olatuek dantzan egiten dute... Maitasuna ete?</p>
<p><b>GARIA</b> t</p>  <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Inoiz ez da beranduegi izaten zerbait ikasteko. Gaztetan egin ezin izan zenuena zergatik ez duzu orain egiten? Anima zaitetz eta beti izan duzun ametsa bete. Unibertsitatera joatea dela? Primeran!</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p>  <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Lotsa brageratik eskegita duzula esan zizuten aurrekoan. Ez kasurik egin, lotsa ostutzeko bakarrik izan behar da-eta! Zuri besteez esaten dutena bost, inori ezer txarrik egiten ez diozun bitartean, noski...</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p>  <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Zure albokoak lan eta lan eta zu besoa besoaren gainean! Ez al duzu pentsatu zurekoia zarenik? Etekinak guztien artean banatzeko izango dira. Zelako aurpegiagaz begiratuko diezu zure lankideei orduan?</p>
<p><b>META</b> t</p>  <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Nola jan ez dakizula? Aspertuz gero, hainbat gauza dituzu zure herrian edo auzoan egiteko. Zergatik ez duzu zure izena elkarteren batean ematen? Zure moduko zaletasunak dituen jendea ezagutuko duzu horrela.</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p>  <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Orain arte egin duzuna zaila dela uste baduzu, presta zaitetz hemendik aurrera datorrenari aurre egiteko. Indarrak hartu eta edozein oztoporen aurrean ez zaitetz kikildu, egiten ari zaren ahaleginak merezi du-eta!</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p>  <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Ez duzu urteak aurrera doazela onartzen. Nerabea izateari aspaldi utzi zenion eta zure adina zure buruari aitortzea ez legoke txarto. Denborak eskarmentua ematen dizu, ez al da polita urteak betetzea? Grabagoa da ez egitea...</p>

**mungia**  
OKINdegia

*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA

KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


- 1. Azpeiti aldean, ondoez, zorabio, mintxuri.
- 2. Xake jokalaria.
- 3. Abaoa, orraza.
- 4. Lehen bokala.
- 5. Bizkaieraz, iloba.
- 6. Leku.
- 7. Gipuzkoako herria.
- 8. Geldia.
- 9. Halabeharra.
- 10. Bokala.

Goitik behera

- 1. Euskal perkusio tresna.
- 2. Pluralean, garbitzeko erabiltzen dugun produktua.
- 3. Ez eme.
- 4. Kalitua, akatua.
- 5. Kontsonantea.
- 6. Itxura, tankera.
- 7. X. hilabetea.
- 8. Gabarra txikia.
- 9. V. hilabetea.
- 10. Gariaren eta kideko landareen zurtoin ihar, ebaki eta jo ondoren.

Soluzioak

K	V	J	V	Z	V	R	H	V			
V	I	V	O	T	I	V					
O	K	E	T	R	V	R	V				
V	Z	E	V	I	R	U	K	V			
R	V	E	V	U	T	V	P				
V	L	E	T	O	M	V	A	I			
K	I	K	O	T	V	B	O	L			
V	V	A	K	S	V	R	V	A			
K	V	I	R	V	L	E	V	X			
V	L	D	I	V	L	A	K	V			



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Ezkerraldean jaioa
- Zuri-gorria beti
- Eztabaidatua ere bai

> Aurrekoaren erantzuna: Toti Martinez de Lezea

> Irabazlea: **Larraitz Bueno (Algorta) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



Getxo Rugby Taldeko kadeteak, 1980

Garai eztiagoak eta hobeak bizi izan ditu Getxo Rugby Taldeak; goiko argazkia iragan distiratsua horren adibide bat baino ez duzue. Artean kadeteak ziren (13-14 urte zeuzkaten) irudian azaltzen direnak. Talde trinkoa eta iraunkorra izan zen hura, zeresan handia eman eta lorpen garrantzitsuak eskuratu zituenak; esaterako, Kopako finala jokatu zuten. Kirolari gazte hauetako asko errugbian jarraitu eta Getxo Rugby Taldeko lehenengo taldean ere jokatu zuten aurrerago.

Zutunik: Iñigo Zuazo Moñi, Enrique Ibabe, Mikel Torrontegi Fokus, Gaizka Escudero Pipi, Patxi Urrutia Patzeko, Imanol Gainza Zipu, Aitor Gorrotxategi Engañapublicos.

Makurtuta: Eneko Arzubiaga Pellejo, Iker Atxurra Atxurrita, Iñaki Uriguen Moska, Toño Vazquez Borlas, Garikoitz Galbarriatu Gari, Gorka Aspuru Italiano.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

**AGURNE ANASAGASTI** > telebista aurkezlea

“Arrazakeria kontuak inpaktanteak izaten dira beti”

Testua: **Oiane Moran**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**  
Burugogorra eta neure lagunen laguna.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**  
Egia esateko, ez naiz oso pelikulazalea eta ez dakit zein esan.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**  
Bere herriaren edo hizkuntzaren alde borrokatzen duen edonor.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**  
Uf! Asko ditut eta gelditu barik egon naiteke gauzak esaten...

**Aitor dezakezun bizio bat.**  
Aitortu ahal dena... ez dakit ba!

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**  
Oraindik ezagutzen ez ditudan lekuetara bidaia berriak egingo nituzke.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**  
Gezurra esatea, batez ere laguna denean.

**Zein da zure ametsetako bat?**  
Egiten dudan lanagaz gustura egotea. Hori da momentu honetan niretzat garrantzitsuena.

**Lo egiteko ezer janzen al duzu?**  
Pijama beti eta, neguan, galtzerdiak ere bai.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**  
Neure jendea barik. Hurbileko lagunak eta familia behar ditut.

**Zein da ikusi duzun azken filma?**  
Uste dut *Crash* izan dela. Gustatu zait, arrazakeria kontuak inpaktanteak izaten dira beti.

**Eta irakurri duzun azken liburua?**  
Gabriel Arestiren poema liburu bat. m

**LABURREAN** — Deustuko Unibertsitatean ikasten zegoela aurkeztu zen Agurne Anasagasti bermeotarra Miss Bizkaia lehiaketara eta ordutik hona ez da geratu, telebistako hainbat saiotan ikusi ahal izan dugu-eta: *Sorginen Laratza* (ETB), *Jaiak* (ETB), *Ruffus y Navarro* (TVE), *Ze Kosmopolita* (ETB), *Visto y no visto* (Tele 5)... Hala ere, bere ibilbide profesionalean zehar baliagarri izango zaiolakoan, ez ditu ikasketak albo batera utzi gura izan eta, Euskal Filologian lizentziatua izateaz gain, Kazetaritza ikasten dabil momentu honetan Euskal Herriko Unibertsitatean. Gainera, ez du bere burua telebistan jardutera mugatzen eta euskara irakasle ere jarduten du lantzean behin.

# BERDINEAN Euskaraz

Elige en euskera!

UMEZAINZTAILE EUSKALDUNAK  
Behar ditugu

Buscamos CUIDADORAS/ES EUSKALDUNES DE NIÑOS/AS

Inskripzioa / Inscripción: PARA ZERBITZUA

KIROL BEGIRALE EUSKALDUNAK  
Behar ditugu Buscamos MONITORAS/ES DE DEPORTE EUSKALDUNES

Inskripzioa EUSKARA

AISIALDIKO BEGIRALE EUSKALDUNAK  
Behar ditugu Buscamos MONITORAS/ES DE TIEMPO LIBRE EUSKALDUNES

Inskripzioa: ZUA

AURKEZLE EUSKALDUNAK  
Behar ditugu Buscamos PRESENTADORAS/ES EUSKALDUNES

Inskripzioa / Inscripción: PARA ZERBITZUA

KLASE PARTIKULARRAK EMATEKO JENDE EUSKALDUNA  
Behar dugu Buscamos PERSONAS EUSKALDUNES PARA IMPARTIR CLASE PARTICULARES

AURKEZTUTAKO ESKAERAK KONTUAN IZANDA HONA HEMEN HURRENGO DATUAK:

## ZERRENDAK PREST

### ERANDIO · LEIOA

AISIALDIA: **67**

AURKEZLEAK: **16**

KIROL BEGIRALEAK: **26**

KLASE PARTIKULARRAK: **56**

UMEZAINZTAILEAK: **53**



LEIOAKO UDALA  
EUSKARA ZERBITZUA  
Jose Ramon Aketxe plaza, 11 - 1<sup>o</sup> solairua  
Tfnoa.: 94 946 072 576



ERANDIOKO UDALA  
EUSKARA ZERBITZUA  
Irailaren 23a plaza, 2/g • 48950 Erandio  
Tfnoa.: 944 890 128

